


Getariako emakumeen eta gizonen berdintasun- egoeraren diagnostikoa

[2021eko azaroa]



Aurkibidea

Sarrera.....	3
Lege markoa.....	4
Metodologia.....	6
Prozesuaren deskribapena.....	6
Diagnostikoa.....	10
Datu demografikoak.....	13
Ondorioak.....	17
Udalaren osaera politikoa eta teknikoa.....	18
Galdetegiaren eta elkarrizketen bidez jasotako iritzien laburpena:.....	22
Ondorioak.....	23
Udal komunikazioa.....	24
Ondorioak.....	27
Sozioekonomia.....	28
Galdetegiaren eta elkarrizketen bidez jasotako iritzien laburpena:.....	33
Ondorioak.....	34
Zaintza lanak.....	35
Galdetegiaren eta elkarrizketen bidez jasotako iritzien laburpena:.....	36
Ondorioak.....	38
Kultura.....	39
Galdetegiaren eta elkarrizketen bidez jasotako iritzien laburpena:.....	40
Ondorioak.....	41
Jaiak.....	41
Galdetegiaren eta elkarrizketen bidez jasotako iritzien laburpena:.....	43
Ondorioak.....	44
Kirola.....	44
Galdetegiaren eta elkarrizketen bidez jasotako iritzien laburpena:.....	46
Ondorioak.....	47

Euskara.....	48
Galdetegiaren eta elkarrizketen bidez jasotako iritzien laburpena:	50
Ondorioak	50
Zahartzaroa.....	51
Galdetegiaren eta elkarrizketen bidez jasotako iritzien laburpena:	53
Ondorioak	54
Gazteria eta hezkuntza (formala eta ez formala)	55
Galdetegiaren eta elkarrizketen bidez jasotako iritzien laburpena:	56
Ondorioak	58
Migrazioa eta aniztasuna	58
Galdetegiaren eta elkarrizketen bidez jasotako iritzien laburpena:	60
Ondorioak	62
Espazioaren erabilera, urbanismoa eta mugikortasuna	62
Galdetegiaren eta elkarrizketen bidez jasotako iritzien laburpena:	63
Ondorioak	64
Gizarte zerbitzuak eta osasuna.....	64
Galdetegiaren eta elkarrizketen bidez jasotako iritzien laburpena:	65
Ondorioak	65
Genero-berdintasuna	66
Galdetegiaren eta elkarrizketen bidez jasotako iritzien laburpena:	68
Ondorioak	71
Aurrera begirako erronkak.....	72
Gobernu ona.....	72
Emakumeen ahalduntzea	73
Ekonomiak eta gizarte antolakuntza eraldatzea, eskubideak bermatzeko.....	74
Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.....	75

Sarrera

Getariako Udalak urteak daramatza genero-berdintasunean aurrerapausoak emateko ekintzak antolatzen. Hori horrela, orain arteko ibilbidean ikasitakotik eta aurrera jarraitzeko beharretik abiatuz, ekintzak modu estrategiko eta sistematizatuan antolatzeko premia mahai gaineratu zuen udalak urte honen hasieran; eta horretarako prozesua abiatu da azken hilabeteetan zehar.

Diagnostiko honekin, Getarian ematen diren genero-desberdinkeria egoerak eta horiei aurre egiteko udalerriak dituen indarguneak, baliabideak eta hobetzekoak identifikatu nahi izan dira. Hau da, Getariako I.Berdintasun Plana definituko duen estrategia udalerriko errealitateari egokitua izan dadin, abiapuntuko informazioa jasotzea izan da egindako lanaren helburua.

Getariako emakumeen eta gizonen berdintasun-egoeraren diagnostikoa da txosten honetan jasotzen dena; eta, dokumentu hau Getariako Udalak eta Emun Aholkularitza zerbitzuak elkarlanean sortu dute.

Lege markoa

Arau esparruan, nazioarteko araudiak, eta Espainiako estatuko eta EAEko arau eta planek osatzen duten arau eremu zabalak babesten dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta hori erdiesteko politika publikoen beharra. Are gehiago, zuzenean udal berdintasun politiken garapenerako eginkizuna ere arautua ikus dezakegu xedapen horietako hainbatetan. Hala nola, honakoetan:

- Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako (2006).
- 3/2007 Lege organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunerako.
- EAEko 2/1988 legea, «Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea» sortarazteari buruzkoa
- EAEko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako.
- EAEko 2/2016 Legea, Euskadiko Institutuzio Lokalei buruzkoa.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.

Lege markoa bereziki indartu zen EAEko 4/2005 eta Espainiar Estatuko 3/2007 Legeen onarpenarekin, politika publikoei dagokionez, inflexio puntu bat suposatu zutelarik.

Eusko Legebiltzarrak onartutako 4/2005 legeak toki administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasuna errealia izan dadin jarraitu beharreko printzipioak eta bete beharreko eginkizunak jasotzen ditu. Legedi horretan, tokiko berdintasun politiken norabidea ezartzeko elementu estrategiko gisa azaltzen da Berdintasun planen elaborazioa.

Horrez gain, lege horren arabera Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onartu behar du legegintzaldi bakoitzean. Plan horretan, modu koordinatuan eta globalean jasoko dira EAEko botere publikoen jarduna gidatuko duten esku-hartzeko ildoak eta zuzentarauak, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez.

Hori horrela, egitasmo honetarako 4/2005 Berdintasunerako Legea eta indarrean dagoen VII. Berdintasunerako Plana izango dira erreferentziazko arau nagusiak.

Bukatzeko, aipatu EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak 4 esku-hartze eremu dituela. Prozesu honetan zehar egindako azterketak bestelako egitura bat jarraitzen badu ere, bukaeran egindako lanaren eta VII. Planaren arteko zubia eraikiz,

etorkizunerako erronkak esku-hartze eremu hauen arabera antolatuko dira. Izan ere, horiek izango dira ondorengo Berdintasun Planean landuko diren erreferentziazko esparruak:

Barne eremua



Gobernu ona

Izaera sozialeko erronkak



Emakumeen
ahalduntzea



Ekonomiak eta
gizarte-antolakuntza
eraldatzea



Emakumeen aurkako
indarkeriarik gabeko
bizitza

Metodologia

Emunek, bere ia 25 urteko ibilbidean ikusi du era honetako prozesuetan, eta kultura aldaketa bati buruz ari garenez, emaitzez gain, prozesuak berak ere berebiziko garrantzia izaten duela. Izan ere, kultura berri bat eraiki nahi dugu, guztiontzat justuagoa eta berdintasunean oinarritua, eta kultura berri hori lortzeko bidean, diagnostikoaren faseak gaiari buruz hitz egiteko eta hausnartzeko aukera paregabea eskaintzen du.

Hori horrela, diagnostiko txostena osatzerakoan arreta berezia jarri dugu ondorengo eremuetan:



Parte-hartzea

Prozesua zehaztean, ondo definitu dira parte-hartzaile bakoitzaren eta parte hartzeko sortu den eremu bakoitzaren helburuak. Gainera, proiektuaren aurkezpenean eta saio bakoitzaren hasieran, helburu horien berri eman da eta jarraitu beharreko arauak zehaztu dira.



Prestakuntza, sentsibilizazioa eta hausnarketa:

Gerta daiteke, berdintasun-plana eduki arren, antolaketa-kulturak desabantaila-egoeran uztea emakumeak eta beste kolektibo batzuk. Horregatik, oinarritik hasi, eta hausnarketa sustatu dugu, diagnostikoaren fasean prestakuntza- eta sentsibilizazio-saioak eginez udal politikari zein langileekin.



Erraztasunak


Erraztasunak, berriz, tresnak, trebetasunak eta teknikak dira, talde-prozesuek eta banakoek garapen egokia izan dezaten. Erraztasunak emanez, norberaren helburuak eta ikuspegia lortzen laguntzen da, eta giro egokia sortzen da pertsonen arteko harremanetarako, konfiantzan eta komunikazio enpatiko eta errazean oinarrituta.

PROZESUAREN DESKRIBAPENA

Berdintasun planen prozesuek fase nagusi hauek dituzte:



Orain arteko lanaren bitartez, goiko irudian azaldutako prozesuaren lehen urratsa eman dugu: diagnostikoa. Getarian emakumeen eta gizonen lehen diagnostikoa 2021ko otsailetik azarora bitarteko epean egin da eta ondorengo irudian jasotakoak izan dira ibilbide horretan emandako urratsak:



Irudian aurkezten dugun bezala, diagnostiko prozesuak 3 fase nagusi izan ditu:

1. Fasea: aurrelanak edo lanen planifikazioa

Fase honen baitan alde batetik prozesuaren planifikazio eta aurreikuspena burutu ziren. Horretarako udaleko ongizate zinegotziak, udaleko gizarte langileak eta Emun Aholkularitzako teknikari batek osatutako talde motor bat sortu eta bildu zen.

Horrez gain, lehenengo fase honetan formazio saioak ere burutu ziren. Bi izan ziren egindako saioak: lehenengoa udal politikariekin egin zen eta bigarrena udal langileekin. Saioa Emun Aholkularitzako bi aholkulari adituk eman zituzten eta ondorengo ezaugarriak izan zituen:

- Helburuak: Proiektua kokatu eta gaiarekiko sentsibilizazioa landu.
- Parte hartzaileak: Lehenengo saioan udal politikariak. Bigarren saioan udaleko sail ezberdinetako langileak.
- Iraupena: 2 ordu.

2. Fasea: Gaur egungo egoeraren diagnostikoa

Fase honek bi atal nagusi izan ditu: datu bilketa eta txostena osatzea.

Diagnostikorako datu bilketa

Datu bilketa kuantitatiboa:

Bi iturri nagusi erabili dira datu kuantitatiboen bilketarako:

- Datu-base ezberdinetan argitaratutako datuen bilketa eta azterketa: EUSTAT, UDALMAP, BEHAGI, Udal Errolda, eta Emakunde, etabarren argitaratutako datuen bilaketa eta azterketa.
- Herri eragileei galdetegia: herri eragile ezberdinen generoaren arabera datuak jaso ditugu galdetegiaren bitartez. Horretarako, koordinazio guneen osarari, eragileko partaideei eta antolatzen diren ekintzetako partaideei buruzko generoaren arabera datuak bildu dira.

Datu bilketa kualitatiboa:



Datu bilketa kualitatiborako erabilitako iturri nagusiak hiru izan dira:

- Elkarrizketak eta talde fokalak: Entzute aktiboan oinarritutako erdi egituratutako gidioen bidez egindako elkarrizketak izan dira. Guztira 12 elkarrizketa egin dira, horietako batzuk taldean burutu direlarik. Elkarrizketatuak 4 udal ordezkari, 4 udal langile eta arlo ezberdinetako 27 herritar (elkartegintzako emakumeak, emakume pentsiodunak,

enpleguko sektore ezberdinetako emakumeak, emakume migratuak, talde feminista eta hezkuntza komunitateko kideak) izan dira.

- Herritarrei galdetegia: Galdetegia herritar guztiei zabaldu zaie, Getariako biztanleek berdintasuna nola bizi duten jakiteko, haien iritzia eta pertzepzioa jasotzeko. Galdera guztietan ekarpenak egiteko aukera eman da. Galdetegia iraila eta urria bitartean bidali eta jaso zen. Galdetegietan parte hartzeari buruzko datuak honako hauek dira:

Jasotako erantzunak	73
Emakumeak	49
Gizonak	20
Ez bitarrak	4



- Behaketa: Kanpoko irudiaren eta kanpo-komunikazioaren euskarriak behatu dira: guztira, udalaren jardueran bereziki esanguratsuak diren 4 euskarri aztertu dira, dituzten hedadura eta izaera sinbolikoagatik.

3. Fasea: Prozesuaren itxiera

Azken fase honetako zereginak prozesuaren ondorioak identifikatzea, prozesua bera baloratzea eta behin betiko txostena osatzea izan dira.

Diagnostikoa

Genero-berdintasunaren diagnostikoa herriko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-maila aztertzean datza. Azken helburua berdintasun-plan bat diseinatzeko eta adosteko oinarri bat eskaintzea da, egungo egoera hobetzeko eta herrian berdintasuna lortzeko. Horretarako, aurrez azaldu bezala, informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa bildu eta aztertu da.

Ondorengo taulan jaso ditugu diagnostikoan aztertutako eremuak, horien deskribapena eta horietako bakoitzean jasotako datuak.

EREMUA	DESKRIBAPENA	DATUAK
DATU DEMOGRAFIKOAK		
	Herriaren egituraketa demografikoak eta bilakaera historikoak eragina izan dezake gizonen eta emakumeen errealitatean. Hori aztertu eta diagnostikoaren oinarri izango den herriari buruzko oinarritzko datuak jasoko ditugu.	<ul style="list-style-type: none"> → Getariako biztanleriaren bilakaera → Getariako biztanleriaren piramideak (2001-2020) → Biztaleriaren zahartzearen grafikoa → Getariako biztanleriaren bilakaera jaioterriaren arabera → Biztanleria atzerritarra sexuaren arabera → 10 urte edo gehiagoko biztanleen ikasketa maila
UDALAREN OSAERA POLITIKOA ETA TEKNIKOA		
	Udalaren osaera politikoa eta teknikoa garrantzitsua da genero-berdintasuna erakundearen oinarrian dagoen printzipioa den aztertzeke eta hura integratzeko aukerak identifikatzeko. Gainera, azterketa honek udalean ematen den aniztasunaz eta ardura banaketaz gain, genero araberko segregazio bertikala eta horizontala eta bestelako datuak ere erakutsiko dizkigu.	<ul style="list-style-type: none"> → Udal taldeen osaera sexuaren arabera → Udal batzordeen osaera sexuaren arabera → Udalaren osaera teknikoa sexuaren arabera → Langile kopurua arloaren eta sexuaren arabera → Udal langileak kontratu motaren eta sexuaren arabera → Udal langileak jardun motaren eta sexuaren arabera → Udal langileak kategoriaren eta sexuaren arabera

UDAL KOMUNIKAZIOA

- Komunikazio-praktiken analisiak udalak komunikazio praktketan aukeraberdintasunerako konpromisoa erakusten duen erakutsiko digu. Horretarako, udalak zein estrategia erabiltzen dituen eta zein hobetzeko esparru identifikatzen diren aztertuko da.
- ↳ Web orriko komunikazio praktiken azterketa
 - ↳ Sare sozialetako komunikazio praktiken azterketa
 - ↳ Udalaren App-ko komunikazio praktiken azterketa

SOZIOEKONOMIA

- Herriko datu sozioekonomiko nagusiak aztertuko dira, horiek generoberdintasunarekin duten loturan arreta jarritz. Azterketa honek, herrian ematen den segregazio horizontala, errenta arrakala eta bestelako adierazle sozioekonomikoen inguruko errealitatea ezagutzea ahalbidetuko digu.
- ↳ Balio Erantsi Gordina sektoreka
 - ↳ Enplegua duten biztanleak lan sektoreka
 - ↳ Jarduera tasa
 - ↳ Enplegu tasa
 - ↳ Langabeziaren tasaren bilakaera
 - ↳ Langabezia tasa
 - ↳ Errenta osoaren bilakaera
 - ↳ Diru sarrera bermatzeko errentaren titularren buruzko datuak

ZAINTZA LANAK

- Etxeko eta zaintza lanen antolaketak eragin zuzena du herriko berdintasunari dagokion errealitatean. Atal honetan errealitate horri hurbilpen bat egingo dugu, horretarako datu gutxi baditugu ere, eduki kualitatiboz elikatuko da gehienbat azterketa.
- ↳ EAEko gizonen eta emakumeen denboraren erabileraren datuak

KULTURA

- Kultur arloaren azterketak, alde batetik herriko tradizio kulturala, beste alde batetik herriko kultur eragileen osaera eta jarduna, eta azkenik horrek guztiak berdintasunean duen inpaktuaren azterketa dakar. Atal hau ere, eduki kualitatiboz elikatuko da gehienbat.
- ↳ Kultur eragileen datuak

JAIK

- Herriko jaietako egitarauak, tradizioek eta ohiturek genero-estereotipoetan zein eragin duten eta herriko jaiak berdintasunari dagokionez zein paper jokatzen duten aztertuko da atal honetan.
- ↳ Herriko jai eta data esanguratsuak

KIROLA

- Kirol esparruan herrian zein dinamika eta errealitate dagoen aztertuko da atal honetan, eta horrek genero-berdintasunean zein eragin
- ↳ Kirol eragileen datuak

duen (emakumeen presentzia eta ikusgarritasunari dagokionez, emakumeen kirolaren aitortzari dagokionez, emakumeen erabakitzeko ahalmenari dagokionez, etab.)

EUSKARA

Hizkuntza ohiturak, erabilera eta transmisioak generoarekin duen lotura aztertuko da. Euskara eta herriko euskalgintzaren genero-ikuspegiaren araberrako analisi bat eginez.

- >2 urteko biztanleak euskara mailaren arabera
- Getariko biztanleria sexuaren eta etxeko hizkuntzaren arabera

ZAHARTZAROA

Herriko nagusien errealitatea, eta batez ere, herriko emakume nagusien errealitatea aztertzen da atal honetan. Ditutzen beharretan eta horiek asetzeko baliabide eta estrategietan arreta jarritz.

- +65 urteko pertsonen proportzioaren bilakaera
- Zahartze indizearen bilakaera
- +65 urteko biztanleriaren piramidea (2020 eta 2010)

GAZTERIA ETA HEZKUNTZA (FORMALA ETA EZ FORMALA)

Haur eta gazteekin hartuemanen dauden eragileak eta horiek genero-ikuspegiarekiko egiten duten ikuspegia eta eindako ibilbidea dira azterketaren oinarri. Horrez gain, berdintasunari dagokionez, haur eta gazteen beharrak eta erronkak ere aztertzen dira.

- <16 urteko biztanleen proportzioaren bilakaera
- Herriko kultur eragileen zerrenda

MIGRAZIOAK ETA KULTUR ANIZTASUNA

Getariara migratutako pertsonen sexuaren araberrako azterketa egiten da atal honetan. Baita migratutako emakumeen errealitatera hurbilpen bat, egon daitezkeen behar, estrategia, erronka eta indarguneetan arreta jarritz

- Espainiar Estatutik kanpo jaiotako pertsonak jaioterriaren eta sexuaren arabera

ESPAZIOAREN ERABILERA, URBANISMOA ETA MUGIKORTASUNA

Herria, bere egitura eta kaleen azterketa egiten da emakumeen bizipenak eta egunerokoa oinarrian jarritz. Azterketa horrek egon daitezkeen gune ilunak, emakumeen kaleetako presentzia sinbolikoa edota irisgarritasun zaileko espazioen inguruan arreta jartzea ahalbidetzen digu.

GIZARTE ZERBITZUAK ETA OSASUNA

Gizarte eta osasungintza zerbitzuen erabiltzaileen datuak aztertu eta horrez gain gizarte zerbitzuetatik eskaintzen den arretaren analisi labur bat egiten da.

- Gizarte Zerbitzuetako baliabideen erabiltzaileak sexuaren arabera

GENERO-BERDINTASUNA

Atal honetan Getarian genero-berdintasunaren alde egin eta indarkeria matxistaren aurka egin den eta egiten den sentsibilizazio lana, erantzun soziala eta bestelako esku hartzeak aztertzen dira. Azterketa horrek herrian dauden baliabide eta aukerak identifikatzen lagunduko digu eta baita etorkizuneko erronkak definitzen ere.

- ↳ Genero-berdintasuna
- ↳ Indarkeria matxista

Diagnostikoaren emaitzak ondoregon egituraketa du:


- ↳ Eremu bakoitzari buruzko azalpen laburra eta Getariako datuak.
- ↳ Eremu batzotzari buruz bildu den iritzien eta bizipenen laburpena.
- ↳ Amaieran, ondorioen atala dago, eremu bakoitzeko datuak eta informazio kualitatiboa kontuan hartuta.

Horrez gain, txostenaren amaieran etorkizunerako identifikatu diren erronkak jaso dira.

DATU DEMOGRAFIKOAK


Biztanleriaren hazkundera eta zahartzea

2020. urte hasieran Getariako biztanle kopurua 2.796 pertsonakoa zen: 1.408 gizonetzko eta 1.388 emakumezko. Datu horiek izan duten bilakaerari erreparatzen baldin badiogu, bi ondorio nagusi azpimarratu ditzakegu: alde batetik, azken lau urteetan joera eten egin bada re, azken bi hamarkadetan biztanleriaren goranzko joera bat hauteman daiteke, 2002tik 2020ra herriko biztanleria %14an hazi delarik. Horrez gain, nabarmentzekoa da gizonetzkoen kopurua beti emakumezkoena baino handiagoa izan dela (ezberdintasuna oso handia ez bada ere).



(Iturria: Udalmap)

Hala ere, gizonezkoen kopurua handiagoa dela baieztatu eta identifikatu badugu ere, garrantzitsua da herriko piramide demografikoari erreparatu eta sexu bakoitzak adinaren arabera zein errepresentazio duen aztertzea, izan ere, genero-ikuspegitik gako garrantzitsuak emango dizkigu horrek.




(Iturria: Eustat)

Esan bezala, piramideetan sexuari erreparatzen badiegu, helduenen artean datu esanguratsu bat identifikatu dezakegu: Getariako biztanlerian, oro har, gizonezkoen kopurua gailentzen dela baieztatu dugun arren, herriko zaharrenen artean joera hori erabat aldatzen da. 2020an 70 urte baino gehiagoko 403 pertsonetatik 173 (%43a) gizonezkoak dira eta 231 (%57a) emakumezkoak. Eta, arrakala are gehiago handitzen da adinean zenbat eta gorago egin, esaterako, 85 urtetik gorako biztanleriari erreparatzen badiogu 46 dira adin horietako emakume getariarrak (%70a) eta 20 gizonezkoak (%30a). Datu honek, noski, emakumeen eta gizonen bizi esperantzaren arteko tarteari erantzuten dio. Baina horrez gain, zaintza beharrak eta bakardadea ere presente egoten diren adina izan daitekeela kontuan hartuz, tentuz aztertzekeo pistak ere azaleratzen ditu. Zahartzaroaren atalean helduko diogu berriz gaiari

Bestalde, piramideek biztanleriaren hazkundea eta zahartzea ere erakusten digute. Alde batetik, piramidearen zabalera handitzeak (ia adin tarte guztietan) biztanleriak gora egin


duela adierazten digu. Dena den, zabaleraren handitze hori bereziki nabarmentzen da piramidean gora egin ahala, eta horrek populazioaren zahartzearen berri ematen digu. Gazteenen artean ere igoera antzeman daiteke, baina helduenen hazkundearekin alderatuta, askoz txikiagoa dela esan dezakegu: 2001 urtean 0-17 urte arteko 463 pertsona zeuden eta 2020an 502 (%8 gehiago). Hirugarren adinekoei erreparatzen badiegu ordea, 2001ean 65 urtetik gorakoak 404 ziren eta 2020an 551 (hau da, %37 gehiago). Ondorengo taulan aipatutako datuen bilakaera ikusi dezakegun, non argi islatzen den 65 urtetik gorako pertsonen herriko populazio osoaren gaineko proportzioak goranzko joera nabarmena duela, eta gazteenen kasuan ordea joera beheranzkoa dela (nahiz eta modu lauso eta ezegonkorragoan).



(Iturria: Behagi)

Getariako biztanleria jaioterriaren arabera


Getariarrek jaioterriaren arabera azken urteetan izan duen eboluzioari erreparatuz gero, baieztatu dezakegu EAEn jaiotako eta Espainiar Estatuan jaiotako (EAetik kanpo) herritarren proportzioak behera egin dutela (egun %84koa eta % ia 5ekoak direlarik, hurrenez hurren); eta, Espainiar Estatutik kanpo jaiotako pertsonen proportzioak nabarmen gora egin du, azken bi hamarkadetan ia 10 puntu hain zuzen.



(Iturria: Behagi)

2021 urtean espainiar estatutik kanpoko 43 nazio ezberdinetan jaiotako pertsonak daude Getarian. Multzo handiena hiru jatorritako pertsonak osatzen dute: Nikaragutatik etorritako herritarrek jaioterria atzerrian duten herritarren %18a osatzen dute, Errumaniatik etorritakoek %17a eta Senegaletik etorritakoek %14a. Ondoren, %3 eta %5 artean kokatzen dira Marokotik, Kubatik, Italiatik, Hondurasetik, Frantziatik, Brasiletik eta Txiletik etorritako pertsonak. (iturria: udal errolda).


Hori horrela, azken urteetan Getariara bizitzera etorritako pertsonen sexuari erreparatzen baldin badiogu, datu totalak nahiko orekatuak direla esan dezakegu.



(Iturria: Udalmap)

Dena den, beharrezkoa da herrialdeen eta sexuaren arabera azterketa sakonagoa egitea, migrazio mugimenduen eta horiek sexuarekin duten loturen argazki zorrotzago bat izateko. Azterketa hori “*Migrazioa eta kultur aniztasuna*” atalean egingo da.

Getariarrak ikasketa mailaren arabera



(Iturria: Udalmap)

Bukatzeko, getariarren ikasketa mailari dagokionez, ikasketak dituen biztanleriaren kopuruak nabarmen egin du gora azken hamarkadetan. Gaur egun, 10 urte edo gehiagoko biztanleriaren %64,2ak bigarren mailako ikasketak dituelarik. Gainera, biztanleria tarte horren %20ak lanbide ikasketak ditu eta 10 urte edo gehiagoko %25ak unibertsitate ikasketak. Dena den, datu hori ez dugu sexuaren arabera bereizita eskuratu, beraz, ezin esan dezakegu ikasketa mailan arrakalarik dagoen.

ONDORIOAK

- Getaria azken hamarkadetan haziz joan den herri bat da. Dena den, biztanleria gutxiko herri bat izaten jarraitzen du, 2020an 2.796 biztanlek osatzen zutelarik.
- Herriko biztanleria, hegoaldeko herrialdeetako joerari jarraiki, zahartzen ari da. Horrek behar eta hutsune ezberdinak azaleratu ditzake, horietako asko zaintza beharrekin loturikoak. Gaur egun zaintza lanak emakumeekin lotzen diren ardurak izanda, beharrezkoa da beharrei erantzuteko erabiltzen diren estrategiek emakumeen bizitzetan zein eragin duten aztertzea eta beharrak asetzeko bide parekideak bilatzea.
- Gainzahartzean emakumeen proportzioa gizonena baino nabarmen handiagoa dela identifikatu da. Errealitate horretatik eratorritako beharrak identifikatzea interesgarria litzateke, emakume horiek bakardade egoeran dauden, behar fisiko zein sozialak asetuta dituzten, etab. ezagutzeko.

- Herrian jaioterria Espainiar Estatutik kanpo duten pertsona kopuruak gora egin du azken urteetan, eta gaur egun herritarren %11 dira. Errealitate horrek kultur aberastasuna kudeatu eta kulturartekotasuna sustatzeko ekintzak egin beharrean jartzen ditu herritar guztiak. Garrantzitsua litzateke, bide horretan emakume migratuen behar espezifikoak ezagutu eta kontuan hartzea (aurrerago sakontasun handiagoarekin aztertuko ditugunak).

UDALAREN OSAERA POLITIKOA ETA TEKNIKOA

Udalaren osaera politikoa

Getariako udalaren ordezkari politikoak alkateak eta 10 zinegotzik osatzen dute. Ordezkariak duten bi alderdietako buruak, alkatea eta oposizioko burua, gizonetzkoak dira. Alkateordea berriz, emakumezkoa da. Talde politikoen osaerari dagokionez, osaera orekatua dela esan daiteke: taldeetako bateko kideen %50a emakumezkoak eta %50a gizonetzkoak dira; eta beste taldean, aldiz, banaketa %40 eta %60koa da, hurrenez hurren.

Talde politikoa	Talde burua				Taldekideak (buruak barne)			
	Emakumeak		Gizona		Emakumeak		Gizonak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
EH Bildu	0	0	1	%100	3	%50	3	%50
EAJ	0	0	1	%100	2	%40	3	%60
Guztira	0	0	2	%100	5	%50	6	%50


Antolaketa politikoari erreparatzen badiogu, 6 informazio batzorde daude. Batzorde horietako buruak sexuaren arabera orekatuta daude, 3 emakumezkoak eta 3 gizonetzkoak direlarik. Dena den, esan beharra dago gaien banaketan, emakumeei eta gizonen tradizionalki esleitzen zaizkien rol eta zereginen isla antzeman daitekeela; izan ere, batzordeburu gizonen esku daude esaterako kirola eta hirigintza, eta, batzordeburu emakumezkoen esku kultura, euskara, hezkuntza, ongizatea edota berdintasuna.

Udal batzordeak	Batzorde burua	
	Emakumeak	Gizona
Hirigintza		
Partehartze komunitarioa		
Kultura-Euskara		
Kirola-gazteria		
Ogasuna-Hezkuntza		
Ongizatea-Berdintasuna		

Bukatzeko, batzordeetako partaideei dagokienez, udal ordezkari guztiek parte hartzen dute batzorde guztietan beraz osaera udalaren ordezkartzaren osaera berdina da.

Udalaren osaera teknikoa

Getariako udalean, udalak kontraturik, modu jarraian 21 pertsonak egiten dute lan. Horrez gain, udako hilabeteetarako udalak beste 8 pertsona kontratatzen ditu TAO zerbitzuaren zaintzarako. Modu jarraian udalean aritzen diren 21 pertsona horien artean 8 emakumezkoak dira eta 13 gizonzkoak.




Hemen, nabarmentzekoa da udal eraikinen eta lokalen garbiketa azpikontratazio bidez burutzen duela Getariako udalak. Lehiaketa publiko 2 urterako esleipenak egiten ditu (beste bi urtean luzatzeko aukerarekin), eta enpresa aldaketa gertatzen denean langileak subrogatuak izaten dira. Garbitzaileen taldea hiru emakumek osatzen dute, bik jardun osoan lan egiten dute eta batek lanaldi partziala du. Hori horrela, ondoren aurkeztuko diren

datuetan garbitzailean datua kontuan izango ez bada ere, irakurketa orokorra egiterakoan presente izan beharreko datua da.


Horrez gain, etxe-etxeko laguntza zerbitzua ere azpikontratazio bidez burutzen da. Zerbitzu honen kasuan ere, lehiaketa publiko bidez eleitzen da eta langile taldea subrogatua izaten da enpresa aldaketa gertatzen denean. Gaur egun langile taldea lau emakumek osatzen dute eta jardun ezegonkorrak dituzte, erabiltzaileen kopuru eta eskaeren arabera modifikatu egiten direlarik.

Udalak kontrataturiko langileak sexuaren eta arloaren arabera udalean zein toki hartzen duten aztertzen badugu, argazkia ondorengoa da:




Grafikoan ikusi daitekeen bezala, hainbat lanetan emakumezkoen eta gizonezkoen rol banaketa tradizionala gailentzen da; horren adibide garbia da, besteak beste, brigada, langile gehienez osatutako saila izanda, bere osotasunean (9 pertsona) gizonez osatzen dela, eta Gizarte Zerbitzuetako bi teknikariak, berriz, emakumezkoak direla. Dena den, ohiko rolak jarraitzen ez dituzten lanpostuekin ere topo egin dezakegu, izan ere, hirigintzako teknikaria edota udaleko idazkaria emakumezkoak dira, eta harrera eta administrazioan ordea gizonezkoak daude. Hala ere, kontuan izan behar da kopuru absolutuak oso txikiak direla, arlo gehienetan pertsona bakarra edota bi pertsona daudelarik.


Bukatzeko, aipatu udan TAO zerbitzurako kontratatzen diren langileetan gizonen eta emakumeen arteko %50eko proportzioa mantentzen dela, 2020an guztira 4 emakumezko eta 4 gizonezko egon direlarik funtzio horiek betetzen



Kontratu motari dagokionez, urte osoan udalean dabilzan langileen %62ak funtzionario plaza du eskuratuta, eta horietako %70a gizonezkoak dira. Interinitate kontratua duten 2 pertsonak ordea emakumezkoak dira. Azkenik, beste kontratu batzuk dituzten langileen artean 2 emakumezkoak eta 4 gizonezkoak dira.




Bestalde, udaleko langileen jardunen ehunekoari erreparatzen badiegu, ondorengo argazkiarekin topo egiten dugu:



Bi dira jardun partziala duten langileak, eta biak emakumezkoak dira. Aipatu, jardun partzialek ez dutela zaintza ardurekin loturarik eta beraz, ez direla zaintzagatiko murrizketa edo antzerako arrazoiengatik. Gainerako langile guztiak jardun osoan daude; guztira 6 emakumezko eta 13 gizonezko.

Bukatzeko, udal langileak kategoriaren eta sexuaren arabera aztertzen baditugu, maila altuenetan emakumezkoen presentzia erabatekoa dela ikusi dezakegu (A1 eta A2 kategorietan %100a emakumezkoak dira) eta bajuenetan ordea gizonezkoak dira gehiengo. Hala ere, hemen eraikinen garbiketan dabiltzan emakumeak eta etxez etxeko laguntza zerbitzuan dauden emakumeak ere gogoan izatea garrantzitsua da, izan ere, horrek argazkia pixka bat aldatzen du.



GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO IRITZIEN

LABURPENA:


- Galdetegi zein elkarrizketetan jasotako hainbat erantzunetan erabaki organoetan emakumezkoen presentzia bermatzea eta haien ahotsei lekua egitearen garrantzia azpimarratu da.
- Horrez gain, genero-ikuspegia zeharlerrotasunez lantzearen beharra ere jaso da iritzi ezberdinetan.
- Bestalde, aipatu beharra dago, herritarrek badutela udaleko langilen artean ematen den segregazio horizontalaren berri eta hori gainditzea aurrera egiteko klabe gisa aipatu da.
- Bide horretan, udal ordezkariak ere brigadaren osaeraren inguruko kezka azaldu dute, eta bertan emakumeak sartzeko borondatea adierazi dute. Emakumeen kontratazioan ekintza positiboak aplikatzeko zailtasun legalak topatu izan dituztela

“herriaren erronka nagusi bat gizonezkoa ez den alkate bat izatea da”

“saiatu gara arau bidez brigadan emakumeen presentzia sustatzen baina zailtasunekin egun dugu topo”

ere baieztatu dute.

Bukatzeko, herritarrei erabakiguneetan (ez bakarrik udalean) emakumeen eta gizonen presentzia parekoa dela iruditzen zaien galdetu zaienean, ia %50ak parekoa ez dela baieztatu du eta %34a izan da presentzia hori orekatua dela adierazi duten erantzunen ehunekoa.



ONDORIOAK

- Udaleko osaera politikoari dagokionez, gizon eta emakumeen kopurua orekatua dela esan daiteke. Dena den, udalean ordezkaturuta dauden bi alderdietako buruak gizonezkoak dira.
- Udal gobernuako batzordeburuen banaketak, oro har, emakume zein gizonei ezartzen zaien rol banaketa tradizionala erreproduzitzen du.
- Udalaren osaera teknikoan ere segregazio horizontala ematen da. Bereziki azpimarragarria da brigadaren osaera (9 gizon) zeinen inguruko kezka adierazi duten bai herritarrek eta baita udal ordezkariak ere. Osaera orekatzeko bideak aztertzen jarraitu beharra dago.
- Horrez gain, udal eraikinen garbiketa eta etxez etxeko lagunta zerbitzua azpikontratazio bidez bideratzea eta funtzio horiek bere osotasunean emakumezkoek burutzea ere kontuan izan beharreko errealitate bat da. Etorkizunean zerbitzuak zuzeneko kontratazio bidez asetzeko aukera arakatu beharreko bide interesgarri bat izan daiteke.

- Lan kategoria altuena duten lanpostuetan emakumeak bakarrik daude. Eta baxuenetan gehiengoa gizonezkoak dira (dena den, hemen udal eraikinetako garbitzaileak eta etxez etxeko laguntzan lan egiten duten emakumeak ere kontuan izatea beharrezkoa da argazkia osatzeko).
- Bestalde, udaleko teknikari batzuk ohiko rol banaketa horretatik urruntzen dira (esaterako udaleko arkitektoa eta idazkaria emakuzmezekoak dira). Horiek ikusarazi eta indartzea garrantzitsua litzateke, ohiko roletatik kanpoko erreferenteak lantze aldera.

UDAL KOMUNIKAZIOA

Komunikazio praktiken azterketak erakutsiko digu udalaren irudiak eta komunikazio praktikek aukera berdintasunarekiko konpromisoa erakusten duen.

Udal baten irudiak pertsonak haren inguruan sortzen duten iritzian oinarritzen da, erakundeak ematen duen informazioaren bidez. Aukera-berdintasunaren aldeko konpromisoak udalaren irudiaren parte izatera igaro behar du, eta horretan eragina izango du hizkuntzaren eta proiektatzen diren irudien erabilera ez-sexista egiteak.

Udal baten irudian eta hizkuntzan gizonak zein emakumeak islatzen diren diagnostikatzeko, beharrezkoa da:

- Udalak sortzen dituen komunikazioak berrikustea, bai barnekoak (zirkularrak, informazio-oharrak, lanpostu hutsen iragarkiak), bai kanpokoak (web-orria, enplegu-eskaintzak, eskuliburuak, memoriak).
- Genero gramatikalen erabilera berrikustea, maskulino orokortzailea ez erabiltzeko joera ezarriz, emakumeak ezkututzen dituelako eta ez direlako hartzaile sentitzen.
- Irudiak berrikustea, estereotipo sexisten arabera defini ez daitezen, adibidez, emakumearen gorputza erabiltzen duten edo genero-estereotipoak transmititzen dituzten iragarkiak, hala nola gizonak eta emakumeak rol profesional estereotipatuetan aurkezten dituztenak (emakume idazkaria/gizon zuzendaria, gizon medikua/emakume erizaina, emakume administraria/gizon mekanikoa...)

WEB ORRIA

TESTUA

Web orrian ez dago testu gehiegi, testu gehiena albisteetan ageri delarik. Sexismoaren zantzurik ohikoenak gaztelaniazko ereduan maskulino generikoa erabiltzean agertzen dira. Nolanahi ere, erabilera orokor hori saihesteko borondate eta saiakera bat ere identifikatzen da, horretarako hainbat estrategia-praktika erabiltzen direlarik. Honako adibide hauetan ikus daitezke:

Maskulino generikoaren erabilera

- “Bienvenido al sitio web del Ayuntamiento de Getaria”
- “...de jubilados y pensionistas”
- “Cursos para ciudadanos”
- “...es enriquecedor para todos”
- “...oposición a secretario interino...”
- “...acercarlo a nosotros...”
- “...juez de paz titular...”
- “El responsable de esta área...”

Hizkuntza ez sexistaren erabilera

- “Buzón de la ciudadanía”
- “Comunicación Ciudadana/Ciudadano”
- “...la contratación de personal...”
- “Plaza de arquitecta/o”
- nacimiento/adopción de hijos e hijas

PLAZA DE ARQUITECTA/O MEDIANTE CONCURSO-OPOSICIÓN +

Ofertas de empleo finalizadas

CONVOCATORIA AGENTES MUNICIPALES. +

VISITAS GUIADAS Y RECEPCIONISTA DE LA OFICINA DE TURISMO DE GETARIA. +

NOMBRAMIENTO DE JUEZ DE PAZ TITULAR +

BASES GENERALES OPOSICIÓN A SECRETARIO INTERINO +

Buzon de la ciudadanía

UDALINFO



A través de este Buzón de la Ciudadanía se pueden hacer llegar al Ayuntamiento **consultas, quejas y sugerencias**, así como **solicitar información**.

Comunicación Ciudadana / Ciudadano

Bienvenido al sitio web del Ayuntamiento de Getaria

A través de este portal queremos acercarlo a ti, pero también acercarlo a nosotros. Por lo tanto, debido a que queremos que la información sea bidireccional, lo invitamos a hacer sugerencias. Queremos ser un ayuntamiento abierto, amplio y participativo, porque somos su propia ciudad, queremos hacer Getaria contigo escuchando y con su participación..

Bestalde, interesgarria da batzuetan udala bigarren pertsonan (zuka) bideratzea web-orriaren erabiltzailearengana: gertutasuna transmititzeaz gain, irteera egoki bat da, gaztelaniazko testuetan, maskulino generikoa edo beste aukera erredundante batzuk etengabe erabiltzea saihesteko.

IRUDI GALERIA

Webgunean agertzen diren irudietan, ia ez dago pertsonen edo pertsona-taldeen presentziarik, eta irudiak ez dira sexistak: hau da, gizonen eta emakumeen proportzioak mantentzen dira, eta ez da genero-rolak edo jarrera sexistarik errepikatzen. Oro har, espazioak eta objektuak erakusten dituzten irudiak gailentzen dira.



SARE SOZIALAK

Sare Sozialetako kontuetan (facebook, Twitter eta Instagram) Getariako udalak publikazio guztiak euskara hutsean egiten ditu, eta ondorioz, hemen ez dugu maskulino generikoaren markarik aurkitu. Iruditeriari dagokionez, webgunean bezala, oro har emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta zaindua aurkitu dezakegu. Gainera, aipatu, sare sozialetan berdintasun diagnostikoaren berri emateko eta herritarren parte hartzea sustatzeko saiakera berezia egin dela, horren bidez udalak proiektuarekin duen konpromiso maila azalertzen delarik.



UDALAREN APP-A

Aplikazioan ere sexismoaren zantzurik ohikoenak gaztelaniazko ereduan (gehienbat albisteen atalean) maskulino generikoaren erabilera da. Dena den, bide honetan ere, erabilera orokor hori saihesteko borondate eta saiakera bat identifikatzen da, horretarako hainbat estrategia-praktika erabiltzen direlarik. Adibideak:

Maskulino generikoaren erabilera

- "...Invitado..."
- "... Vivencias y reflexiones de cada uno..."
- "...hacer nuevos amigos..."
- "...los ciudadanos..."
- "...los getariarras..."
- "...los jóvenes de la localidad..."

Hizkuntza ez sexistaren erabilera

- "...personas que están aprendiendo..."
- "...de la ciudadanía"
- "...opiniones de vecinos y vecinas..."
- "...la juventud"
- "...las getariarras y los getariarras..."

Iruditeriari dagokionez, aurrez azaldutako joerari jarraiki, app-ean ere gizonen eta emakumeen presentzia orekatua eta zaindua da.

ONDORIOAK

- Aztertu diren euskarriak lagin bat besterik ez dira. Azterketa horren bidez, udalaren komunikaziorako lehen hurbilketa bat egin nahi izan da, genero-ikuspegia nola txertatu den ikusteko. Interesgarria litzateke, plana inplementatzen den bitartean, udalaren komunikazio euskarrien analisia diseinatzea eta, hala dagokionean, egokitzea, indarrean dauden euskarrietan genero-berdintasuna bermatzeko.
- Gazteleraizko testuetan maskulino generiko edo orokortzailearen presentzia nabarmena dago, nahiz eta hizkuntza ez sexistarako saiakera bat ere igartzen den.
- Ez dago komunikazio ez sexistari buruzko hizkuntza-irizpiderik, eta komenigarria litzateke horiek jasotzea, azaltzea eta zabaltea.
 - o Interesgarria da lan-ildo hori ekintza-planean txertatzea.


- o Ez dago komunikazio-gida edo -protokolorik. Komenigarria litzateke hizkuntza-irizpide estandarrak sortzea eta horiek langile zein politikarien artean sozializatzea lan-tresna gisa, aurrerantzean sortuko diren euskarrietan ere berdintasunezkoak izatea erraztuko bailuke. Ildo horretan, lagungarria izan liteke langileen artean hizkuntzaren erabilera ez-sexistari buruzko prestakuntzak egitea.
- Iruditeriari dagokionez, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua zaintzen da.
- Hizkera eta komunikazio ez sexistan trebatzeaz gain, komunikazio inklusiboago baten aldeko jauzia ere egitea joatea komeni da. Sexismoa ez da hizkuntzan eta hizkeran eragina duen diskriminazio sistema bakarra. Hizkuntzaren erabilera begirada kritikoz aztertzen badugu eta hizkeraren bidez berdintasuna eta aniztasuna ikusarazteko apustua egin badugu, ezinbestean erreparatuko diogu beste botere sistemei: arrazakeriari, heterosexismoari, transfobiari eta kapazitismoari, besteak beste. Gure gizartearen erronka da gai hori ere begirunez tratatzea eta hobekuntzak egitea.

SOZIOEKONOMIA

Getariako egitura sozioekonomikoari erreparatzen badiogu, baieztatu daiteke zerbitzu herria dela. Balio erantsi Gordina sektoreka aztertzen badugu, ikusi dezakegu erdia zerbitzu sektoreak sortzen duela (%51,5). Zerbitzu sektorearen atzetik industria sektoreak eta lehen sektoreak antzerako pisua dute (%24,9 eta %23, hurrenez hurren) eta azkenik, eraikuntza sektorearen indarra nahiko txikia da (%0,6).


Hala ere, nabarmentzekoa da, Getariako argazkia eskualdeko edota probintziako argazkitik urrundu egiten dela, izan ere, bertan lehen sektoreak duen presentzia inguruan duena baino nabarmen handiagoa da. Bide horretan, esan beharra dago, Getaria lehen sektorean tradizio handia duen herria dela: bai arrantzan eta bai txakolinaren produkzioan.

Gainera, tradizio horrek herriko egitura sozioekonomikoan eragiteaz gain herri identitatean ere eragin nabarmena izango du, aurrerago aztertuko dugun bezala.




(Iturria: Udalmap)

Enplegua duten biztanleen sektorekako datuei erreparatzen badiegu, argazkia pixka bat aldatzen da, izan ere, zerbitzu-, industria- eta eraikuntza-sektoreek hartzen duten pisuak gora egiten du (%62,99, %27,01 eta %3,4, hurrenez hurren) eta lehen sektoreak ordea nabarmen egiten du behera (%6,58). Dena den, lehen sektorean enplegatuta dagoen pertsona kopuruak eskualdekoa eta lurraldekoa baino nabarmen handiagoa izaten jarraitzen du.




(Iturria: Udalmap)

Getariako jarduera-tasari dagokionez, gizonezkoena (%55,3) emakumezkoena (%49,8) baino 5,5 puntu. Dena den, biak eskualdekoak eta lurraldekoak baino pixka bat altuagoak dira.




(Iturria: Eustat)

Enplegu tasari erreparatzen badiogu, hemen ere antzerako argazkia aurkitu dezakegu, izan ere, Getariako emakumeen enplegu tasa (%53,5) gizonezkoena (%59,9) baino txikiagoa da (6,4 puntu); baina, biak dira eskualdekoa eta lurraldekoa baino pixka bat altuagoak.




(Iturria: Eustat)

Bestalde, langabezia datuak begiratzen baditugu, 2020an langabezia tasa 9,1ekoa izan zen eta esan behar da azken urteetako eboluzioari erreparatuta, beheranzko joera izan duela. Gizonen eta emakumeen artean tasa antzerakoa zen 2020an (9,3 eta 8,9, hurrenez hurren). 2019an ordea sexuen arteko arrakala handiagoa zen, izan ere gizonen langabezia tasa (11,1) emakumezkoena (8,8) baino 2,3 puntu handiagoa izan zen.




(Iturria: Eustat)

Bestalde, 2020ko langabezia tasa eskualdekoarekin eta lurralde historikokoarekin alderatzen badin badugu, ikusi dezakegu emakumezkoena Getarian pixka bat txikiagoa dela (Urola Kostakoa baino 0,5 puntu eta Gipuzkoakoa baino 0,6 puntu txikiagoa) eta gizonazkoa ordea handiagoa; gainera, aldea ere handiagoa da (Urola Kostakoa baino 2,6 eta Gipuzkoakoa baino 1,9 txikiagoa).



(Iturria: Eustat)

Aztertutako datu eta adierazleek (eta aztertu gabe utzi ditugun beste hainbatek) eragin zuzena dute, noski, aberastasunaren banaketan. Getariako biztanleriaren batez besteko errentan arreta jartzen badugu ikusi dezakegu azken hamarkadetan honek goranzko joera izan duela, baina beti mantendu izan dela emakumeen eta gizonen errenten artean alde nabarmen bat. Azken datua kontuan izanda (2018koa), emakume getariarrek batez beste gizon getariarrek baino 11.545 euro gutxiagoko errenta osoa dutela ikusi dezakegu, hau da, arrakala %39koa da.



(Iturria: Behagi)

Datu hori eskualde eta lurraldekoarekin konparatzen badugu, arrakala antzerakoa dela esan dezakegu, izan ere, Urola Kosta batz besteko errentan ematen den arrakala %41ekoa da eta Gizpuzkoan ordea %38koa.

2018	GETARIA	UROLA KOSTA	GIPUZKOA
Emakumeen batz besteko errenta guztira (eurotan)	17.844	17.074,62	17.459
Gizonen batz besteko errenta guztira (eurotan)	29.389	29.047,28	28.100
Batz besteko errenta guztira (eurotan)	23.633	23.012,77	22.190,91

(Iturria: Behagi)

Hori horrela, bukatzeko, Getarian pobrezia eta gizarte-bazterketa egoera edo arriskuan dauden pertsonen profilei hurbilketa bat egiteko helburuarekin, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrei erreparatuko diegu. Hemen, aipatu, 2020. urtean 38 pertsonak jasotzen zutela aipatutako errenta, eta gizonen eta emakumeen kopurua antzerakoa zela (28 eta 20, hurrenez hurren). Horrez gain, titularren 9 pentsiodunak ziren eta erdia atzerritarrak. Guztira 68 Getariar ziren errenta horren onuradun (titularrak eta bizikidetz-unitateko gainera kideak kontuan hartuz).

Diru sarrerak bermatzeko errentaren titularrak	2020
Guztira	38
Emakume-titularrak	20
Gizon-titularrak	18
Titularrak diren pentsiodunak	9
Titularrak diren atzeritarren kopurua	19
Onuradunen kopurua (titularrak eta bizikidetzak-unitateko gainerako kideak)	68

(Iturria: Behagi)

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO IRITZIEN

LABURPENA:

- ↳ Getariarrek ere argi dute zerbitzu herria dela beraiena.
- ↳ Dena den arrantza eta txakolinaren produkzioa ere askotan aipatu da elkarrizketetan, herriari erabat lotuta dauden eta herriaren nortasunean erabateko eragina izan duten jarduera gisa. Azken hori, arrantzari buruz hitz egitean azaldu da gehienbat.
- ↳ Enpleguan sexuaren araberako lan banaketa sumatzen dute, izan ere, hainbatek gizonak lehen sektorean eta ostalaritzan eta emakumeak beste zerbitzu sektoreko lanetan pilatzen direla baieztatu dute.
- ↳ Horrez gain, jatorriaren araberako lan banaketa ere aipatu da, Getarian jaiotakoek arrantzan edo mahastietan lanik egin nahi ez dutela eta lan horiek jaioterria atzerrian duten pertsonak burutzen dituztela baieztatuz.
- ↳ Hala ere, azken azkenaldian herriko gazte

“Zerbitzu herri bat da”

“Mahastian gizonak daude, hilabete batean ibiltzen dira emakumeak ere, baina bestela, gizonak”

“Arrantza mundua ikutzeak asko inkomodaten du Getarian”


“Arrantza mundua oso

gutxi batzuk bertan lanean hasi direla ere jaso dugu.

- Bestalde, galdetegia erantzun duten getariarren gehiengoak (%62ak) emakumeek eta gizonek enplegurako sarbide eta promozio aukera berdinak ez dituztela uste du. %23a ez da baieztapenaren alde ez kontra posizionatzen eta %15ak, aukera berdinak dituztela uste du.

konplexua da

“Getariarrek ez dute lana egin nahi mahastan ezta itsasoan ere ez. Bizi kalitate altuko herria da”



ONDORIOAK

- Getariako egitura ekonomikoa zerbitzu sektorean oinarritzen da. Gainera, enplegua duten biztanleen gehiengoak ere zerbitzu sektorean lan egiten du.
- Hala ere, aipagarria da lehen sektoreak Getarian inguruan baino pisu nabarmen handiagoa duela. Horren arrazoia, arrantzak eta txakolinak herrian duten tradizioa izan daiteke.
- Sektorekako sexuaren araberako daturik lortu ez badugu ere, herritarren pertzepzioa da segregazio horizontala ematen dela, gizonak lehen sektorean eta ostalaritzan eta emakumeak beste zerbitzu sektoreko lanetan pilatzen direlarik.

- Enplegu-tasari erreparatzen badiogu, herriko emakumeen tasa (%53,5) gizonezkoena (%59,9) baino txikiagoa da (6,4 puntu); baina, biak dira eskualdekoa eta lurraldeko historikokoa baino altuagoak.
- Langabezia-tasan emakumezkoena gizonezkoena baino 0,4 puntu txikiagoa da.
- Bataz besteko errentari erreparatuta, Getariako errenta Urola Kostakoa eta Gipuzkoakoa baino altuagoa da (bai gizonena eta baita emakumezkoena ere). Hala ere, emakumezko eta gizonezko getariarren errenten artean %39ko arrakala dago (Urola kostan %41 eta Gipuzkoak %38).
- Bide horretan, galdetegia erantzun dutenen artean %62ak uste du emakume eta gizonek ez dituztela enplegurako promozio eta sarbiderako aukera berdinak.

ZAINTZA LANAK

Gaur Egun ez dugu Getariako herritarren denboraren erabileraren eta zaintza lanen daturik. Dena den, EAEko datuei¹ erreparatzen baldin badiogu Getariako errealitatera hurbiltzeko lagungarri zaigun hainbat informazio aurkitu dezakegu:

Alde batetik, zaintzarako eszedentziei dagokienez, 2019an seme alaben zaintzarako hartu ziren eszedentzien %91,1a emakumeek hartu zituzten eta senitartekoan zaintzarako eszedentzien kasuan %72,5a da horiek hartu zituzten emakumeen portzentaia.

Horrez gain, biztanleria landunak etxeko lanak egiten ematen dituen orduei dagokienez, ondorengo argazkiarekin egiten dugu topo:

	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Aldea
Etxeko lanak	1,8 ordu	2,1 ordu	1,5 ordu	-0,6 ordu
Seme-alaba adingabeak zaintzea	4,0 ordu	4,7 ordu	3,3 ordu	-1,4 ordu
Mendeko pertsonak zaintzea	1,9 ordu	2,3 ordu	1,5 ordu	-0,8 ordu



(Iturria: Zifrak 2020 – Emakumeak eta gizonak Euskadin Emakundek argitaratutako txostena)

Ondorioz, datuek azaleratzen duten bezala, etxeko eta zaintza lanetan gizonezkoek egunean emakumezkoek baino ia 3 ordu gutxiago ematen dituzte.

¹ Zifrak 2020 – Emakumeak eta gizonak Euskadin Emakundek argitaratutako txostena

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO IRITZIEN

LABURPENA:



Zaintzari lotutakoak elkarrizketa ezberdinetan aipatu dira, erpin asko dituen gaia izanik, guraso, aiton-amona, zaintzaile edota hezitzaileen iritziak jaso ditugu. Horrez gain, herritarrei zabaldutako galdetegian ere hainbat izan dira gai honekin lotutako ekarpenak:

- Gaur egun zaintza lanen banaketak orekatze bidean daudela uste da. Dena den, oraindik, ardura hori gehiebat emakumeen gain dagoela baieztatu da behin baino gehiagotan. Gainera, desoreka hori handitu egiten da zaintza arduren planifikazioaz hitz egitean, izan ere, horiek ia erabatean emakumezkoek egiten dituztela baieztatu dute elkarrizketatuetako askok.
- Getariako arrantza tradizioak rolen banaketa tradizionala sakondu duela aipatu da.
- Bide horretan, zaintza eta etxeko lanen planifikazioak eragiten duen nekea adierazi dute elkarrizketatuetako batek baino gehiagok. Eta bikotekide gizonari egin beharrekoa esateak eragiten duen nekea adierazi dute hainbatek. Gainera,

hainbatetan gizonen ekarpenak “laguntza” gisa izendatu dira, lanen ardura emakumeen gain dagoela ulertaraziz.

- Emakumeek bere gain ardura guztia hartzeko joera ere badutela aipatu da, eta ingurukoei edo bikotekideei batzuetan ez dietela ardura hori hartzen uzten.
- Zaintza lanek herriko bizitza soziopolitikoan parte hartzea baldintzatzen dutela ere baieztatu da hainbat alditan.
- Horrez gain, seme alaben zaintzan aiton-amonek (eta gehienbat amonek) duten pisua ere aipatu da elkarrizketa ezberdinetan. Amona diren hainbat emakumek biloben zaintza borondatez egiten dutela baieztatu dute, seme-alabei laguntzeko helburuarekin. Bestalde, iraganean seme alaben zaintzaz arduratzen ez ziren edo gutxi arduratzen ziren gizon asko gaur egun biloben zaintzan inplikatuago daudela baieztatu da.
- Bestalde, hainbatek familiako zaintza beharrak asetzeko langileak kontratatzen dituztela baieztatu dute.
- Udan lan egiten duten sektoreetako emakumeek zailtasun nabarmenak azaleratu dituzte seme-alaben zaintzarako eta zerbitzu publiko nahikorik ez dagoela adierazi dute. Kontratazio pribatu bidez edo aiton-amonen laguntzarekin bideratu behar izaten dituzte egoera horiek. Turismora bideratutako herria izanda, antzerako egoeran dauden familiak asko izan daitezkeenaren susmoa azaleratu da eta horiei laguntzeko bide bat abuztuan ere udalekuak eskaintzea izan daitekeela aipatu da.
- Oro har, haurren zaintzarako herriko neska gazteak eta helduen zaintzarako jaioterria latinoamerikan duten emakumeak (eta geroz eta gehiago gizonak ere) kontratatzen direla baieztatu da. Lan horiek prekarizatuta daudenaren sentsazio orokortu bat antzeman da.
- Hainbat emakumek beraien amatasuna kudeatzeko moduagatik epaituak sentitu izan direla aipatu dute, eta hori bereziki mingarria egiten zaiela.
- Emakume migratuek zaintza lanetan enplegua topatzeko erraztasuna dutela baieztatzen dute. Gizonezkoek zailtasun handiagoak dituztela ere aipatu da.
- Dena den, emakume migratuek beste askok nahi ez duten lana egiten dutela uste dute. Hori, besteak beste, herrialdean egoera irregularrean egoteak eragiten dien menpekotasunarekin lotzen dute.

“Arratsaldetan bilera bat jartzen duzu 18:30ean eta gizonek ahal dute baina emakumeek askotan ezin dute norbait zaindu behar dutelako ordu horietan”

“Autokritikoa naiz ere, gaizki egin behar duela pentsatu eta nik egiten dut. Ta motxilan lan gehiago sartzen ditut”

“Udako zaintzen antolaketak kudeaketa asko eskatzen du.”

“Nik egiten ditut mila gauza gehiago, berak egiten ditu nik dirijituta. Esan behar horrek nekatu eta aspertu egiten du”

“Getarian zen gizonak itsasoak eta emakumeak etxeko lanetaz arduratzen”

“Ama ona eta txarra. Min asko ematen du”

ONDORIOAK

- Zaintza eta etxeko lanak emakumeen bizitzekin erabateko lotura duten errealitate bat dira, elkarrizketa ia guztietan agertu den gai bat izan delarik. Gaur egun, Getarian zaintza eta etxeko lanen ardura nagusia emakumeek dute, eta lanen planifikazioaz ari garenean arrakala nabarmen handitzen da elkarrizketatutako emakumeen esanetan. Arduren banaketan sakontzea beharrezkoa da, gizonen inplikazioa handitzeko herritarren kontzientziario mailan eta eguneroko ohituretan eraginez.
- Haurren zaintza beharrei erantzuterakoan gurasoez gain aiton-amonek ezinbesteko rol bat hartzen dute familien egunerokotasuna bideragarria izateko. Horrek emakume nagusien bizitzan zein inpaktu duen sakonago aztertzea garrantzitsua litzateke.
- Haurren eta nagusien zaintzan kanpo kontratazio pribatuak ere presentzia nabarmena dute. Elkarrizketetan esandakoei jarraiki, haurrak zaintzeko herriko neska gazteak kontratatu ohi dira eta nagusien zaintza ordea, latinoamerikatik migratutako emakumeek burutzen dute gehienbat. Kontratazio horietan eskaintzen diren baldintzek kezka eragiten dute hainbat herritarren artean.
- Udan lan egiten duten eta zaintza ardurak dituzten pertsonak, ardura horiei erantzuteko zailtasunak adierazi dituzte, garai horretan zerbitzu publikoak murriztu

egiten baitira. Bide horretan, zailtasun horiek arintzeko bideak aztertu eta eskaintzea interesgarria litzateke.

KULTURA

Getariako kulturgintzari dagokionez, udalak zein herri eragile ezberdinek sortzen duten eskaintzaren bidez elikatzen da. Udalaren jardunari erreparatzen badiogu, honek urtero kultur ekitaldi ezberdinak eskaintzen ditu (ikastaroak, kontzertuak, ikuskizunak, etab.). Dena den, horietako asko herri mugimenduko eragileekin elkarlanean antolatzen dira.

Horiek antolatzeko udal baliabideei dagokienez, hainbat dira aurki ditzakegu espazioak: liburutegia, Ulpiano gela, herriko frontoia, plaza, etab.

Era berean, esan bezala, hainbat dira herri mugimenduan kulturgintzan lanean dabiltzan herri eragileak eta taldeak: Gure Txeru Kirol Kultur elkarte, Getariako musika banda, Getariako Pepita Enbil Musika Eskola Elkarte, Habaneratik Alamedara Bertso Eskola, elkarte gastronomikoak...

Horien funtzionamendu eta jarduna genero-ikuspegitik aztertzeko helburuarekin, informazio bilketaren prozesuan herrigintzako eragileei galdetegi bat bidali zitzaizen prozesu honen baitan. Dena den, gutxi izan dira jaso ditugun erantzunak. Ondorengo taulan laburbiltzen ditugu:

	Koordinazio gunearen osaera sexuaren arabera	Parte hartzaileak sexuaren arabera
Bertso Eskola	Emakumeak %60 baino gehiago	Emakumeak eta gizonak gutxienez %40
Musika Eskola	Emakumeak eta gizonak gutxienez %40	Emakumezkoak %60 baino gehiago
Musika Banda	Gizonak %60 baino gehiago	Emakumeak eta gizonak gutxienez %40

Datu horien arabera, esan daiteke hiru eragile horien irudikatzen duten errealitatea nahiko orekatua dela sexuari dagokionez. Dena den, lagina oso txikia da eta ondorioz, ez diru ondorio orokorrak ateratzeko nahikoa informazio eskaintzen. Hori horrela, argazkia osatzeko ezinbesteko izango zaigu informazio bilketa kualitatiboaren analisia.

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO IRITZIEN

LABURPENA:

- Elkartegintzako emakumeekin izandako elkarrizketan aipatu denaren arabera, kulturarekin lotutako ekintzetan emakumeen presentzia altuagoa izan ohi da.
- Bide horretan, kultur esparruan ere herriko tradizio arrantzaleak eragina duela aipatu da, izan ere, emakumeak herrian geratzeak beraiengan herriarentzat gauzak antolatzekeo ardura hartzea ere ekarri zuen eta ondorioz, badago ohitura emakumeek gauzak antolatzekeo.
- Hala ere, emakumeen eta gizonen parte hartzea arloaren arabera dela ere baieztatu da, ohiko rol tradizionalak jarraikiz kirolean gizon asko eta dantzan gehienbat emakumeak, esaterako.
- Ildo beretik, rol tradizionalak apurtzeak dakarren estigmatizazioa eta hori gainditzeko erreferenteak sortzeak duen garrantzia aipatu da.
- Antolaketa eta parte hartzean oreka jarduten duen kultur eragile gisa Musika Banda aipatu da.
- Bukatzeko, udalean egindako elkarrizketetan jasotakoaren arabera, bertatik antolatzen diren ekintzetan eta emanaldietan emakumeen presentzia bermatzen saiatzen dira.

“Emakumeak antolatu eta egiten zuten dena eta badago ohitura emakumeek antolatzekeo gauzak”

“Arautik irtetzean seinalatu egiten zaituzte”

“Ez da erraza diskriminazioei aurre egitea”

“Kulturarekin lotutako ekintzetan emakumeen presentzia altuagoa izaten da”

ONDORIOAK

- Kultur eremua eta kultur kontsumoan emakumeen presentzia handiagoa denaren sententzia dute elkarrizketatuek. Horretarako arrazoiak bat herriaren tradizio arrantzalearekin lotzen dute, gizonak itsasoan egotean emakumeek gauzak antolatzeke arduratu dutela baieztatuz. Egiten den lan hori jaso eta ikustaraztea interesgarria izan daiteke, emakumeek herriari egindako ekarpena bistaratzeko.
- Rol tradizionalak ere pisu nabarmena dute Getariako ekintzetan gizonak eta emakumeek ekintzetan parte hartzeke orduan. Horiek gainditzeko urratsak ematea garrantzitsua da.
- Udaletik antolatzen diren kultur jardueretan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bilatzen da. Lanketa horrekin jarraitzea garrantzitsua da, emakumeen lanari ere ikusgarritasuna ematen jarraitzeke.

JAIK

Jaiak une eta egitate garrantzitsuak dira herri batentzat. Arlo asko barnebiltzen dituzte (tradizioa, errituak, hartu eman informalak, batasuna,...) eta horiek herri nortasuna eraiki eta indartzeko garrantzitsuak dira. Hori horrela, giza harremanak eta gizarte egiturak aztertzeke parada ezin hobea ematen digute, eta zentzu horretan, garrantzitsua da azterketa hori genero-ikuspegitik egitea, estereotipoak indartu edo eraldatzen diren ikus ahal izateke, besteak beste.

Ondorengo taulan laburbiltzen dira Getarian ospatzen diren jai edo egun bereziak:

DATA	JAIK	ANTOLATZAILEA
Urtarrilak 17	San Anton (Txakolin eguna): Txakoli dastaketa, kirol herrikoa, musika	Getariako Txakolina Elkarte eta Udala
Otsaila	Inauteriak	Udala
Apirilak 27	San Prudentzio jaiak	San Prudentzioko Lagunak
Maiatzak 3	Antxoa Eguna	Elkano Arrantzaleen Kofradia
Maiatzak 4	San Isidro jaiak	Miako Auzo Elkarte
Maiatzak 5	Arrantzale eguna	Elkano Arrantzaleen Kofradia

Maiatzeko azken larunbata	Euskal jaia	Udala
Ekaineko lehenengo igandea	Zahartzaroari omenaldia	Tonpe Guraso Elkarte
Ekainak 23 eta 24	San Juan jaiak	San Juan jaietako Jai Batzodea
Abuztuak 6	Salbatore Deuna: Musika, pilota partiduak, kirol herrikoa, bazkari herrikoa, kontzertuak	Udala
Abuztua (4 urtean behin, hurrengo 2018)	Elkanoren lehorreratzea.	Udala
Udaran	Ur kirolak (estropadak, trainerillak, bela..), erakusketak, kontzertuak.	Kirol elkarteak, udala, kultur elkarteak..
Azaroak 11	San Martin jaiak	Askizu Auzoko Elkarte
Azaroko azken astebukaera:	Haur eguna eta alkate txiki eguna	Tonpe Guraso Elkarte
Abendua/Urtarrila:	Gabonak	Udala eta herri eragile ezberdinak

Ikusi daitekeenez herrian hainbat gai eta ekimenen harira egiten dira festa eta ospakizunak: kirola, arrantza, adina, txakolina... eta horietan askotarikoak dira antolatzen diren ekimenak: emanaldiak, kontzertuak, lehiaketak, azokak, ekitaldiak eta abar luze bat. Antolakuntzan ere askotariko herri eragileak aurki ditzakegu, jaien antolakuntzan herritar asko eta anitzak inplikatzeko direlarik. Gainera, aipatu ekintza gehienetan antolakuntzaren ardura nagusia zerrendatutako eragileek badute ere, normalean beste herri eragileren baten zein herritarren laguntzarekin egin ohi direla.

Dena den, antolatzen diren ekintzetan genero-ikuspegia txertatzen den ezagutzea da hemen bilatzen duguna, batez ere. Horretarako, hurrengo ataleko ekarpenak ezinbestekoak izango dira.

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO IRITZIEN

LABURPENA:

- Getariako festetan bi sexu eraso salatu dira azken hamarkadan.
- 2017en eman zen sexu eraso bat. Momenutan mugimendu feminista antolaturik ez zegoen herrian baina gertaera egungo talde feministaren egituraketan egitate garrantzitsu bat izan zen. Hurrengo urteetan jai espazioak espazio seguru izateko lanketa propioak egin ditu talde feministak.
- Hainbat elkarrizketatan lau urtean behin ospatzen den Elkanoren lehorreratzea aipatu da, herrian eztabaida sortzen duen gai gisa. Hainbatek gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna errespetatzen ez duela aipatu dute.
- Kezka horri erantzuteko, udalak 2018tik hainbat urrats eman ditu berdintasuna bermatze bidean. Horrez gain, 2021 urtean ospakizun hori etorkizunean nolakoa izango den erabakitzeke parte hartze prozesu bat jarri du.
- Bestalde, bi urtean behin abuztuko San Salbatore festetan burutzen den Konpartsaren inguruan ere eztabaida sortu izan dela aipatu da. Ekitaldian izena emateko baldintza da gizonezko batek eta emakumezko batek osatutako bikotea izatea. Baldintzaren arrazoia gizonezkoen parte hartzea sustatzea dela ere jaso dugu elkarrizketetan.

“Gauzak ez dira aldatzen batetik bestera, pausoz pauso. Orain martxan da parte hartze prozesua leorreratzea mende honetara nola egokitu daitekeen adosteko”

“Elkanoren gaiak eztabaida pizten du”

“Eraso horren amorrutik festetara bideratu genituen ekintza guztiak, protokoloak, musika... Babesik gabe sentitu ziren jazarpen hauen aurrean”

ONDORIOAK

- Jaietan emandako erasoek eragina izan dute herrian feminismo antolatu bat sortzean. Gainera, horri lotuta jai eremuetara bideratutako lanketa propioak egin dira azken urteetan. Arlo hori lantzen jarraitzea eta jaiak espazio seguru izateko beharrezko baliabideak garatzea ezinbestekoa izango da etorkizunean ere.
- Hainbat ospakizunek (Elkanoren lehorreratzeak eta konpartsak) eztabaida sortzen dute herrian, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari dagokionez, besteak beste. Udalean eztabaida horien kontzientzia badago, azken urteetan bide horretan hainbat urrats eman dira, eta gaur egun, herritarrekin batera Elkanoren lehorreratzea nola ospatu erabakitzeko dinamika partehartzailea jarri du martxan. Garrantzitsua litzateke prozesu horretan genero-ikuspegia presente izatea.
- Dena den, oro har, jaietako egitarauen generoaren araberako berariazko azterketarik ez da egin, nahiz eta kultur eremuan bezala antolatzen diren ekintzen bidez emakumeen presentzia ere bermatzen saiatzen den udala. Hala ere, herriko tradizio eta ohiturek genero-estereotipoetan zein eragin duten eta herriko jaiak berdintasunari dagokionez zein paper jokatzen duten aztertzeko lanketa bat egitea interesgarria izango litzateke. Bide horretan, hobetzekoei aurre egiteko estrategiak diseinatu eta ondo egiten direnak babesteko neurriak adostea interesgarria litzateke.

KIROLA

Getarian kirolak presentzia nabarmena eta egonkortua duela baieztatu dezakegu. Gainera, bertan, beste herri batzuetan ere gailentzen diren futbolaz eta saskibaloiaz gain, beste kirol batzuk ere errotuta daudela baieztatu dezakegu, hala nola, pilota edo arrauna.

Herriko kirol eskaintza elkarleen bidez, kiroldegiaren bidez eta udalaren bidez bideratzen da oro har. Eskaintza horren koordinaziorako Kirol Mahai bat dago, non Udala eta kirol talde ezberdinetako ordezkariak biltzen diren.

Getariako kirol egituratua, hainbat zutabetan oinarritzen da. Alde batetik, talde eta elkarteek burutzen duten federatuentzako eskaintza dago, zeina taldeetatik kudeatzen den eta normalean urte osorako eskaintzek osatzen duten. Beste alde batetik, herriko kiroldegi

publikoan eskaintzen diren ikastaroekin egiten dugu topo (aipatu, kiroldegiaren kudeaketa enpresa bati esleituta dagoela). Bukatzeko, urtean zehar udalak eta elkarte zein taldeek burutzen dituen ekimen ezberdinak daude (ikuskitunak, lasterketak, kirol gutxituak ezagutarazteko programak...).

Horrez gain, aipatu beharra dago herriko haurrek eskola kiroleko programan parte hartzeko aukera ere badutela.

Zortzi dira herrian dauden kirol talde edo elkarteak:

- KETA Futbol Taldea
- Getariako Arraun Elkarte
- Gaztetape Surf Elkarte
- Keta Sharks Saskibaloia taldea
- Gure Txeru Pilota Elkarte
- Getaitri Triatloi Kluba
- Katxapo Zikloturista Elkarte
- Getariako Judo Kluba

Talde horien guztien koordinazio esparruen eta parte hartzaileen sexuaren araberako datuak eskuratzeko galdetegi bat bidali zitzairen, baina erantzuna oso txikia izan da eta ez dugu aurkeztu ahal izateko nahikoa datu eskuratu.

Dena den, oro har, gizonezkoen presentzia gailentzen dela esan daiteke eta horren erakusle dira Kirol Mahaiaren osaera datua, izan ere, bere osotasunean gizonez osatua dago. Hala ere, aipatu, horrek taldean bertan kezka eragiten duela.

Bide horretan, esan behar da azken urteetan emakumezkoen kirola bultzatzeko ekimenak martxan jarri direla, hala nola, emakume korrikalari taldea osatzeko saiakera (Kirol mahaitik bideratu zena), Emakume Master Cup pilota txapelketako partidak Getarian antolatzea edo neskek pilota ezagutzeko deialdi berezia (Gure Txeruk eta Udalak bideratuta). Gainera, aurten, kirol eredu aldatzeko helburua zuen hurrei bideratutako programa bat jarri du martxan udalak elkarte ezberdinen laguntzarekin, programak kirol gutxituak ezagutzera ematea eta lehian oinarritu gabeko kirola sustatu nahi izan du. Aipatu, bertan nesken parte hartzea handia izan dela.

Horrez gain, azken urteetan kirolari emakume ezberdinak ikusarazi eta aitortzeko ekimenak ere egin dira, esaterako, Ane Campos eta Irati Idiakenez getariarrei omenaldia egin zioten 2020an eta 2021ean, hurrenez hurren.

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO IRITZIEN

LABURPENA:

- ↳ Oro har, herrian kirol esparrua esparru maskulinizatua da elkarrizketatuetakoen iritziz; herriko talde gehienetan gizonezkoen presentzia emakumezkoena baino askoz handiagoa delarik.
- ↳ Gainera, kirola egiten duten emakume gehienak ekintza zehatz batzuetan metatzen direla ere jaso dugu: pilates, spinning, yoga... Horien ezaugarri bat espazio itxi eta pribatuan egiten dela dela aipatu da eta publikoan egiten diren kirolean gizonezkoen presentzia nabarmen handiagoa dela.
- ↳ Errealitatea hori izanda, espazio maskulinizatueta parte hartzeko emakumeek zailtasunak dituztela aipatu da. Gainera, batzuetan emakumeek jasan ditzaketen diskriminazioak identifikatzeko zailtasunak ere dituztela baieztatu da.
- ↳ Errealitate hori gainditzeko, erreferenteen garrantzia azpimarratu dute hainbat elkarrizketatuk. Bide horretan eman diren urratsak positiboki baloratu dira. Hala ere, erreferenteak sortu eta indartzerakoan kirol esparru ezberdinetan aritzen diren emakume getariarrak ikustarazteaz gain, herrian bertan kirola burutzen duten emakumeak ere bisibilizatzearen garrantzia aipatu da.
- ↳ Horrez gain, lehia gutxitzea eta kirola gozamenera bideratzea ere aipatu da emakumeak erakartzeko bide gisa. Izan ere, jasotakoaren arabera, haurren artean lehiatik kanpo eta ohikoak ez diren kirolak sustatzen direnean, neskak gehiago animatzen

“Kirolean emakumeek ez dute diagnostikatzeko diskriminatuta daudela”

“Erreferenteek beste batzuk ere animatzea eragiten dute”

“Bisibilizatzen diren kirolean gizonezkoak egoten dira”

“Herrian bertan kirola

dira. Bide horretan, esperientzia ezberdinetan (arraun eta triatloi probak esaterako), orokorrean, mutilek lehia bilatzen zutela eta neskek berriz, lehiarik gabeko kirola oso positiboki baloratzen dutela antzeman dutela adierazi digute.

- Eskola Kirolari dagokionez, 2020an aurrez jarraitzen ziren irizpideak aldatu eta talde ez mistoak sortu izanaren kezka ere jaso dugu.
- Aukera dagoenean, emakumeak taldeetako erabaki guneetan egotearen garrantzia ere azpimarratu da.
- Gaiaren inguruan, herritarren artean zein udalean kezka bat badagoela antzeman dugu, eta azken urteetan ekimen ezberdinak burutu direla jaso dugu.

*egiten duten emakumeak
bisibilizatu behar dira”*

*“Kirol mahaian badago
kezka emakume
faltagatik”*


ONDORIOAK

- Kirol eremua maskulinizatuta dago Getarian, batez ere, espazio eta eremu publikoan burutzen den kirolari dagokionean. Taldeetako zuzendaritza organoetan gehiengoak gizonenak dira eta parte hartzaileen artean ere desoreka nabarmena dago.
- Udalak horren kontzientzia du eta azken urteetan emakumezkoen kirola sustatzeko ekimen ezberdinak antolatu dira. Hasitako bidean jarraitzea eta helburu horretara bideratutako plangintza egituratu bat izatea interesgarria izango litzateke.
- Herriko kirol taldeetan gaiarekiko kezka maila ezberdinak aurkitu ditzakegu. Dena den, garrantzitsua litzateke kirol eremua ere emakumeentzat espazio hurbila izateko, taldeen kontzientziazio maila lantzea.
- Emakume kirolarien erreferentzialtasuna berdintasunaren bidean aurrera egiteko gako gisa identifikatzen da. Zentzu horretan, azken urteetan urrats nabarmenak eman dira, dena den, herrian bertan kirola egiten duten emakumeak ere ikustaraztea garrantzitsua litzateke.

- ↳ Lehiatik urruntzen den kirol eredia sustatzea emakumeak erakartzeko eta kirol kultura osasuntsuago bat eraikitzeko bide gisa identifikatzen da. Bide horretan ere plangintza egituratu batekin arakatzeko jarraitzea interesgarria izango litzateke.


EUSKARA

Getariako herritarren euskararen ezagutza altua da (%84ak 2016an), gainera, datu hori eskualdekoa baino pixka bat handiagoa eta herrialdekoa baino nabarmen handiagoa da.



(Iturria: Eustat)

Bestalde, hizkuntzaren erabilerari dagokionez sexuaren araberako datuak ere aurkitu ditzakegu. Etxeko hizkuntzari erreparatzen badiogu, ikusi dezakegu 2016an getariarren %71,6ren etxeko hizkuntza euskara zela. Horien artean, etxean euskaraz egiten zuten emakumeen kopurua pixka bat handiagoa zen. Oro har, joera hori beste datuek ere baieztatzen dute, izan ere gaztelania erabiltzen zuten emakumeen kopurua txikiagoa zen. Beraz, erabilerari dagokionez, Getarian ere azken urteetan Euskal Herrian identifikatzen ari den joera orokorra errepikatzen da.



(Iturria: Eustat)

Hala ere, aipatu, 2021. Urtean kale neurketa berriak burutu direla, sexuaren aldagaia ere kontuan izanez. Interesgarria litzateke horien emaitzak izatean, horiek egindako azterketara gehitzea.

Euskararen sustapenerako herrian egiten den lanari dagokionez, alde batetik, aipatu behar da gaur egun udala “Getariako Euskararen Plan Orokorra 2020-2023”aren inplementazioan murgilduta dagoela, zeinak Getariako euskararen erabileran eragitea duen helburu. Horren baitan, eskolarekin elkarlanean proiektu ezberdinak burutzen dituzte, eta horrez gain turismoa bulegoaren bidez edota ostalari eta merkatariekin lanketa ezberdinak egiten dituzte. Gainera, Getaria UEMAKo herri bat da, eta ondorioz, udalak burutzen duen lanketarako UEMAKo teknikariekin elkarlana eta beraiek eskainitako baliabideak ere funtsekoak dira.

Herrigintzari dagokionez, Artzape Euskara Elkartea dago, zeinak, gaur egun, herriko aldizkaria sortzea duen zeregin nagusizat. Hala ere, batzuetan bestelako jarduerak ere antolatzen dituzte. Artzaperen osaerari dagokionez, alde batetik, aldizkaria kontratupean dauden bi emakumeren artean argitaratzen dute. Horrez gain, elkarteko erabaki zein ekintzetan beste kide gutxi batzuk ere parte hartzen dute.

Horrez gain, herrian, ekintza zehatzetarako taldeak ere sortu izan dira (euskaraldia, korrika...)

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO IRITZIEN

LABURPENA:

- Udalean euskara mahai bat sortzeko ideia landu izan dela aipatu da.
- Turismo bulegoatik eskaintzen den zerbitzuan euskarari lehentasuna ematen zaiola ere esan da elkarrizketetan; lehen hitza euskaraz, iruditerian euskarak lehentasunezko toki bat.
- Horrez gain, herriko errealitate linguistikora hurbiltzea ahalbidetzen digun informazioa ere jaso dugu, izan ere, elkarrizketatuetako batek baieztatu duenez, eskolan etxeko hizkuntzari buruz egindako galdeketa batean, haur getariarren etxeetan 20 hizkuntza ezberdin hitz egiten direla ondorioztatu da.
- Oro har, Euskara Elkartearen inguruan dabilzan herritarren gehiengoa emakumezkoak direla adierazi da.
- Horrez gain, herrian, ekintza zehatzetarako sortu diren taldeetan ere, emakumeen parte hartzea gailendu dela aipatu da.
- Bestalde, Getarian gizonen artean hika erabiltzen dela baina noka ordea ez dela erabiltzen azpimarratu dute hainbat pertsonak.
- Elkarrizketatutako emakume migratu batek euskara ikasteko nahia adierazi du, baina, era berean, horretarako enpleguak eta bestelako ardurek eragiten dioten ezintasuna ere azpimarratu du.
- Bukatzeko, Artzape aldiriko kideek adierazi dutenez aldirirako edukia sortzerakoan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea bilatzen dute.

“Aldizkarirako edukia sortzerakoan oreka bilatzen dugu. Indarra jartzen ari gara horretan”


“Estudiar aquí se me complica porque en el tiempo que podría estudiar tengo que trabajar. Euskera, por ejemplo, quiero estudiar”

ONDORIOAK

- Getarian euskararen ezagutza handia da (2016an herritarren %84 ziren euskaldunak), Urola Kostan eta Gipuzkoan baino handiagoa.
- Euskararen erabilera eta transmisioaren feminizazio zantzu batzuk antzematen dira. Izan ere, erabilerari dagokionez. 2016an getariarren %71,6aren etxeko hizkuntza euskara zen eta horien artean emakumezkoen kopurua pixka bat handiagoa zen. Horrez gain, herrian euskalgintzaren inguruan dabilzan pertsonen gehiengoa ere emakumezkoak dira.
- Hala ere, Getarian hika mantentzen da baina noka ez da erabiltzen. Hemen, kontuan hartzekoa da beste herri batzuetan ere antzerako egoerak identifikatu izan direla, eta horiei erantzuteko lanketa espezifikoak egin direla. Zentzu horretan interesgarria litzateke Getarian ere bide horretan urratsak ematea.
- Udalean euskara mahai bat sortzearen ideia ere badago, etorkizuneko balizko mahai horretan genero-ikuspegia presente egotea garrantzitsua izango litzateke

ZAHARTZAROA


Arestian aipatu bezala, Getariako biztanleria, herrialdeetako joerarekin bat, zahartzen ari da. Datuek azalera dute bezala, 65 urtetik gorako biztanleen proportzioak ia etengabe egin du gora azken hamabost urteetan, 2004tik 2020ra ia 4 puntu igo delarik.



(Iturria: Behagi)

Gainera, herriko nagusien proportzioak gora egitearekin batera herriko gazteenena (<15) jaisten ari da azken urteetan, eta ondorioz, herriko zahartze indizea ere etengabe hazten ari da azken urteetan.

Horrez gain, garrantzitsua da herriko nagusien adinaren eta sexuaren arabeko proportzioei erreparatzea, izan ere, zahartzaroan, eta batez ere, gainzahartzaroan emakumezkoen proportzioa gizonetzkoena baino handiagoa da. Esaterako, 2020 urtean 85-89 urte arteko emakume kopurua gizonetzkoen kopuruaren bikoitza zen.



(Iturria: Eustat)

Hori horrela, aztertutako errealitateak erantzun beharreko hainbat behar azaleratzen ditu: alde batetik, pertsona nagusien eta batez ere emakume nagusien balizko bakardadean arreta jarri beharra dakar. Horrez gain, zaintzarekin lotuta dauden oinarrizko beharrekin ere egiten dugu topo. Eta gainera, behar horiek aldebiko norabidea dute, izan ere, funtsezkoa da zaintzaileengan ere arreta jartzea. Bide horretan, gogoratu, aurrez ikusi dugun bezala, egungo gizartean, zaintza lanak emakumezkoen gain daudela gehienbat.

Beraz, ondorioztatu dezakegu, Getarian ere, biztanleriaren zahartzeak erronka garrantzitsuak irudikatzen dituela, eta erronka horiek genero-ikuspegiarekin lantzea ezinbestekoa izango da.

Herrian nagusien beharrei erantzuteko dauden baliabideei dagokienez, Jubilatu Elkartea, Eguneko zentroa eta udala aipatu behar ditugu. Jubilatu elkarteak zein udalak ekintza eta ikastaro ezberdinak burutzen dituzte. Horien artean aipatzekoa da emakume nagusiei bideratutako ikastaro bat eskaintzen duela udalak, zeinak emakumeen ahalduntzea lantzea duen helburu.

Bukatzeko, aipatu, gaur egun herriko pertsona nagusien egoera ezagutzeko diagnostiko prozesu bat martxan jarri duela udalak; eta, bertan arreta propio bat eskainiko zaio herriko emakume nagusien egoeraren berezitasunei.

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO IRITZIEN

LABURPENA:

- Emakume pentsiodunekin izandako elkarrizketan pertsona helduek gizonen eta emakumeen arteko berdintasunera egin beharreko bidean duten ardura aipatu da behin baino gehiagotan, nagusiek ere aldaketa egin behar dutela eta haur eta gazteengan bakarrik eragiten saiatzea nahikoa ez dela baieztatu.
- Bide horretan belaunaldi ezberdinen arteko hartuemana positiboki baloratzen da.
- Bestalde, euren egunerokotasunari dagokionez, biloben zaintza lanak ere aipatu dira askotan. Seme alabei laguntzeko eta borondatez egiten dutela baieztatu dute hainbatek. Dena den, zaintza ardura horiek beste ekintza batzuetan parte hartzeko zailtasun gisa ere aipatu dira.
- Biloben zaintza lanetan senarrek ere laguntzen dutela jaso da. Dena den, oro har, etxeko lanetan senarrek jubilatu aurretik baino inplikazio gehiago dutela aipatu bada ere, horien ardura gehiena eta gidaritza osoa emakumeen gain dagoela baieztatu da.
- Jubilatu elkarteak antolatzen dituen irteeretan gehienbat emakumeek parte hartzen dutela baieztatu da. Gizonek, ordea, soziedadeko ekintzetan parte hartzen dute gehiago.
- Pertsona nagusientzat antolatzen diren ekintzetara oso jende gutxi joaten dela baieztatu dute.
- Gaur egungo emakume helduak bizitzan lan asko egin eta gutxi ordaindu eta aitortuak egon direla uste da orokorrean.
- Orain dituzten kezken artean heriotza ona izatea eta etxean karga bat ez bihurtzea aipatu dira. Horrez gain, emakume nagusien bakardade egoera eta batzuetan kalera ateratzeko jende beharra ere jaso dira.

*“Orain nahiz jubilatuta egon
ilobak zaintzen alabari
laguntzen, lanean”*

*“Jubilatu denetik laguntzen dit
etxean orain, dana nik esanda e”*

*“Pertsona behin jubilatuta ezkerro,
a vivir izan behar da. Eta jende
gutxik egiten du”*

*“Nagusiok ere egin behar dugu
aldaketa. Badago gogoia aldatzeko
nagusien artean ere. Erosotasunean
mantentzeko aitzakia izaten da
gazteengan ardura jartzea.”*


*“Beste denak berdin jarraitzen badu
haurrak ere ezingo dira aldatu”*

ONDORIOAK

- Getaria zahartzen ari den herri bat da, azken urteetan 65 urtetik gorako pertsonen proportzioak etengabe gora egin duelarik. Horrek herri gisa erantzun beharreko erronkak marrazten ditu eta bide horretan genero-ikuspegia presente izatea ezinbestekoa izango da.
- Emakume nagusi askoren egunerokotasuna zaintza lanekin estu lotuta dago, askok borondatez egiten badute ere, lan nekagarria dela ere aitortu da. Neke eta pisu horri erantzun eta arintzeko moduak bilatzea herritar guztien ardura izango da.
- Dena den, emakume helduenen artean ere genero-berdintasunerantz bidea egiteko gogoia antzeman da, gogo hori elikatu eta urratsak emateko baliabideak eskaintzen jarraitzea ezinbestekoa izango delarik (ahalduntzean sakonduz).
- Emakume nagusiek kezka eta bizipen propioak dituztela ikusi ahal izan dugu egindako bidean, horiek partekatze eta aitortzeko moduetan sakondu beharra identifikatu da.
- Hala ere, aipatutako guztiak eta gehiago ezagutzeko, gaur egun, martxan dagoen diagnostiko prozesua (eta bertan genero-ikuspegia txertatzea) gako garrantzitsua da herriko emakume nagusien beharrak ere aintzat hartu eta horiei erantzuteko bideak irudikatze.

GAZTERIA ETA HEZKUNTZA (FORMALA ETA EZ FORMALA)

Azken urteetan herriko gazteen proportzioak beheranzko joera hartu du:



(Iturria: Behagi)

Hala ere, esan beharra dago herrian haur eta nerabeek hartzen duten proportzioak behera egin badu ere, haur eta nerabeen kopuru osoak gora egin duela azken bi hamarkadetan, eta ondorioz, 2020 urtean 2001ean baino 17 urte azpiko getariar gehiago zeudela.

Hori horrela, sexuaren araberako banaketari dagokionez, aipatu ez dagoela datu deigarririk. Bestalde, herriko hezkuntza eragileei dagokienez, ondorengoak aipatu behar ditugu:

- Getariako Haurreskola-Katxapo: 0-2 urte arteko haurrekin lan egiten dute. Bost lankidek osatzen dute, lau emakume eta gizon bat.
- Eskola: LH6ra arteko eskaintza du.
- Guraso Elkarteak: Herrian bi guraso elkarre daude:
 - o Zanbuka Guraso Elkarte (eskolako guraso elkarte): eskolaren inguruko ekimenak antolatzeko biltzen dira. Kideen osaerari dagokionez, gehiengoak emakumezkoak dira.
 - o Herriko Guraso Elkarte: herrira begirako eskaintza egiten du, urtean hainbat ekimen antolatzen ditu: bizarzuri, pintura eguna, haurrentzat zinea...
- Urritza Aisialdi taldea: Herriko Hezkuntza ez formalean aritzen da, udan udalekuak antolatzen ditu eta urtean zehar gazteleku zerbitzua kudeatzen du. Talde egonkorra zazpi kidek osatzen dute, sei neska eta mutil bat.

Horrez gain, udalak ere Hezkuntza Batzordea du eta hezkuntza eragile ezberdinekin elkarlanean aritzen da ekintza eta proiektu ezberdinak burutzeko.

Emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, azken urteetan hezkuntza eragileek lanketa ezberdinak burutu dituzte eta burutzen dituzte, hala nola, eskolako patioaren erabilerari buruzko lanketa, urteko egun zehatzen (martxoak 8, azaroak 25) inguruko lanketa, guraso eskola,...

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO IRITZIEN

LABURPENA:

Hezkuntza eragileetako ordezkariekin zein udaleko kideekin izandako elkarrizketetan jasotako informazioa da ondorengoa:

- Elkarrizketetan zein galdetegiko ekarpenetan behin baino gehiagotan aipatu da berdintasunean heztearen eta hezkuntzan eragitearen garrantzia. Hezkuntza aldaketarako gako gisa identifikatzen dute herritar askok.
- Hala ere, oro har, hezkuntza eragile gehienek aipatu dute genero-ikuspegia ez dela berariaz lantzen (ez haurrekin ezta helduen artean ere ez). Hainbatek iraganean lanketa ezberdinak egin dituzte, baina gaur egun ez da gaia espreski lantzen. Hala ere, guztiek adierazi dute zeharka berdintasunean oinarritutako balioak transmititzen dituztela. Dena den, hori askotan norberaren kontzientzia eta prestakuntza mailaren menpe geratzen dela ere aitortu da.
- Hala ere, arazo edo arrazoi zehatz bat dagoenean berariazko lanketak bai egiten direla baieztatu da.
- Salbuespen gisa, eskolan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bai da bertan bereziki lantzen den gai bat, bai zuzenean eta baita zeharka ere.
- Guraso eskolak bideratzen dituen *Harremanak* elkarteak egiten duen lana positiboki baloratzen da eta genero-ikuspegia oso presente duela baieztatu da.
- Gazteen errealitateari dagokionez, orokorrean, genero-rol tradizionalak erreproduzitzen dituztela baieztatu da. Eta gaur egun horiekin apurtzea normaliatuago badago ere, oraindik estigmatizazioak bizirik dirauela uste dute gehienek.
- Hala ere, gazteek sexu orientazio ezberdinak eta familia egitura anitzak normaltasun handiagoarekin bizi dituztela uste dute elkarrizketatuek.
- Bestalde, herriko haur eta gazteen hezkuntzan guraso eta hezkuntza eragileetatik kanpo kokatzen diren faktoreek duten eraginarekiko kezka ere aipatu da (sare

sozialak, internet, pornografia...). Horien kontsumo kritiko bat egiten erakustea aipatu da haur eta gazteak berdintasunean hezteko bide gisa.

- Gurasoei dagokienez, haurren zaintzaren ardura lehen baino orekatuago dagoela uste da. Dena den, amen presentzia oraindik handiagoa dela baieztatu da. Hainbat eragilek guraso guztiak inplikatzeko saiakera propioak egiten dituztela baieztatu dute.
- Bestalde, hurrekin genero-rolak jarraitzen ez dituzten jarduerak burutu izan direnean (mutilei azazkalak margotu esaterako), hainbat gurasok edo aiton-amonek erresistentziak azaleratu izan dituztela baieztatu da.
- Haur eta gazteak gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean hezteko bidean persona helduen eredugarritasunak duen garrantzia azpimarratu da.
- Bukatzeko, etorkizunerako erronka gisa gazteekin sexu-genero identitate anitzak lantzea, gazteen kritikotasuna sustatzea, gaia herriko famliekin lantzea (arazo zehatz bat egon gabe), eta genero-rol tradizionalak gainditzea aipatu dira. Horiek erdiesteko bide gisa, eredugarritasuna lantzea eta haur eta gazteei denbora eskaintzea azpimarratu dira.

“Gurean ez dago bermatuta genero-berdintasunarekiko ezagutza garatu bat”

“Eskolan, askotan, libre uzten baditugu badute joera neskak neskekin eta mutilak mutilekin elkartzeko”

“Txikitatik erakutsi beharko litzaieke bideoak ikusten modu kritiko batean”

“Azazkalak margotu, makillatu, eta horrelakoetan eztabaidak, erresistentziak ere izan ditugu.”

*“Sexu orientazio ezberdinak gero eta normalizatuago daude beraien artean.
Eta familia anitzak ere normalizatuago daude”*

ONDORIOAK

- Haur eta gazteengan eragitea eta horretarako hezkidetzan oinarritutako hezkuntza aldaketara bidean aurrera egiteko gako gisa identifikatzen dute herritar askok, elkarrizketetan zein galdetegiko ekarpenetan etengabe irten den gai bat izan delarik.
- Azken urteetan, hezkuntza eragileek berdintasunera bideratutako lanketa eta formazioak egin dituzte. Dena den, batzuetan lanketak egoera zehatzei erantzuteko egiten dira eta ez da etengabeko formazio baten baitan kokatzen.
- Ondorioz, batzuetan haur eta gazteekin harremanetan, hezitzaile zein gurasoek duten formazio eta kontzientzia mailaren araberakoak izaten dira berdintasunari lotutako lanketak. Hezkuntza eragileetako kideek berdintasunean etengabeko formazioa izateko bideak esploratzea interesgarria izango litzateke.
- Esperientzia positiboak ere identifikatu dira, hala nola, guraso eskola. Horrelako ekimenekin jarraitu eta herrian egiten den lan hori ikustaraztea garrantzitsua da.
- Haurren eragiteko gako gisa erreferenteak lantzea dela identifikatu da. Hori nola landu diseinatzea eta herritarrak horretarako baliabide eta tresnaz hornitzea izango litzateke zentzu horretan hurrengo urratsa.


MIGRAZIOA ETA ANIZTASUNA

Dokumentu honen hasieran Getariako datu demografikoak aztertzean azaldutakoari jarraiki, Espainiar Estatutik kanpo jaiotako pertsonen proportzioak nabarmen egin du gora azken bi hamarkadetan. Gaur egun, getariarren %11,02ak jaioterrria Espainiar Estatutik kanpo du eta jatorrizko herrialde horien artean 43 herrialde ezberdinekin egiten dugu topo. Hori horrela, Getariak kultur eta ohitura aberastasun duen herria da.

Hala ere, jatorri guztietako pertsona kopurua ez da berdina, multzo handienak hiru jatorritako pertsonak osatzen dutelarik: Nikaragutatik etorritako herritarrek jaioterrria atzerrian duten herritarren %18a osatzen dute, Errumaniatik etorritakoek %17a eta Senegaletik etorritakoek %14a. Ondoren, %3 eta %5 artean kokatzen dira Marokotik, Kubatik, Italiatik, Hondurasetik, Frantziatik, Brasiletik eta Txiletik etorritako pertsonak. Azkenik, proportzio txikiagoan, Getariako populazioa ondorengo herrialdeetan jaiotako pertsonak ere osatzen dute: Albania, Alemania, Aljeria, Argentina, Australia, Bangaldesh, Bielorrusia,

Bolivia, Britainia handia, Bulgaria, Cabo Verde, Danimarka, Ekuador, Errusia, Estatu Batuak, Georgia, Ghana, Guatemala, Hegoafrika, Irlanda, Kamerun, Kolonbia, Mazedonia, Mexiko, Moldabia, Monako, Pakistan, Paraguai, Peru, Portugal, Txina, Ukraina eta Venezuela.


Hiru talde nagusietako herritarrak sexuaren arabera aztertzen badugu, hainbat datu esanguratsurekin egingo dugu topo:



(Iturria: Udal errolda)

Grafikoan antzeman daitekeenez, jatorrizko herrialdearen arabera, gizonen eta emakumeen kopuruak nabarmen aldatzen dira: jaioterria Senegalen duten getariarren artean %78a gizonezkoak dira eta soilik %22a dira emakumezkoak. Nikaraguari erreparatzen baldin badiogu ordea, joera erabat alderantzikatzen da, izan ere, %71 emakumezkoak dira eta %29a gizonezkoak. Jatorri errumaniarra duten herritarrei erreparatzen diegunean kopuruak orekatu egiten dira (%45 emakumezkoak eta %55 gizonezkoak).


Hori horrela, garrantzitsua da azpimarratzea hiru herrialde horietako datuek joera orokorragoen erakuslehoio direla. Izan ere, jatorrizko herrialdeak herrialde talde handiagoen arabera bereizten baldin baditugu, argi ikusiko dugu latinoamerikatik etorritako pertsonen artean emakumezkoen proportzioa nabarmen handiagoa dela, Europako beste herrialde batzuetatik etorritako pertsonen artean proportzioak orekatuago daudela, nahiz eta gizonezkoen kopurua gailentzen den; eta azkenik, Afrikatik etorritako pertsonen gehiengo nabarmena gizonezkoak direla:



(Iturria: Udal errolda)

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO IRITZIEN

LABURPENA:



- ↳ Elkarrizketetan jasotako iritzien arabera, emakume migratuek askotan jaioterria EAEn edo Espainiar estatuan duten pertsonak nahi ez dituzten lanak egiten dituzte (zaintza lanekin loturikoak ia guztiak). Iritzi hori, emakume talde ezberdinetan adierazi da, bai migratutako emakumeen artean eta baita beste emakume taldeen artean ere.

- Dena den, migratutako emakumeek adierazi dutenez, beraiek lana aurkitzeko erraztasuna dute Getarian, migratutako gizonzkoek baino askoz handiagoa (batez ere egoera irregularrean baldin badaude).
- Horrek migratutako familietan aldaketa handia dakarrela ere aipatu da. Izan ere, emakumeak dira enplegua dutenak eta diru sarrera bermatzen dituztenak eta gizonzkoak etxean geratzen dira etxeko eta zaintza lanetan.
- Lan baldintzei dagokienez, askotan baldintzak eta tratua behar lirakeenak baino txarragoak direla baieztatu da hainbat elkarrizketetan. Elkarrizketatutako emakume migratuek adierazi dutenez, herrialdean irregular egoteak erabateko eragina du lan baldintza txarrak onartzean, eta egoera horretatik eratorritako arriskuek (kanporatua izatea, beste lanik ez topatzea) erabat baldintzatzen dituzte emakume migratuen aukerak.
- Emakume migratuekin egindako elkarrizketan jendea ezagutzearen garrantzia ere aipatu da, beste pertsona batzuk ezagutzea eta elkarri entzutea eskertzen dutela baieztatuz. Sozializatzeko oztopo nagusi gisa denbora falta dela baieztatu da.

“Para nosotras en mas facil encontrar trabajo que para él, y es un gran cambio porque le toca a el cuidar la casa, la niña.”

“Como no estamos regulares no tenemos las mismas condiciones de trabajo, no te pagan lo que deben y no te tratan bien”

“Cuando la gente te escucha y entiende de lo que estas hablando te sientes bien. La gente con la que he compartido lo ha hecho. Solo que te escuchen ya es bastante.”

“¿Por qué vienen las madres? Porque quieren un futuro mejor para sus hijos/as. Las mujeres que venimos aquí somos muy trabajadoras”

“Nosotras hacemos el trabajo que muchos no quieren. La gente que tiene todos sus documentos en regla lo pueden hacer pero no lo hacen, porque no les gusta.”

“Helduen zaintzan hegoameriketako pertsonak aritzen dira, gehienbat emakumeak baina gizonak ere badaude. Baina, zaintzaile horiei zenbat ordaintzen diete?”

ONDORIOAK

- Getarian herrialde askotan jaiotako herritarrak daude. Dena den, emakumeei dagokionez, latinoamerikatik migratutakoak gailentzen dira, guztien %50a baino gehiago direlarik. Ondorengo talde nagusia Europatik etorritakoek osatzen dute. Segidan Afriatik etorritako emakumeak daude eta azkenik Asiatik zein beste toki batzuetatik migratutakoak.
- Emakume migratuek, arraza, etnia, nazionalitatea, edota beste arrazoi batzuegatiko zapalkuntzak ere jasaten dituzte (eta horrela onartzen dute galdetegia erantzun duten getariarren gehiengoak). Zapalkuntza anizkoitzek nola elkareragiten duten aztertu eta ikuspegi integral batetik eragitea garrantzitsua izango litzateke.
- Emakume migratu askoren errealitateak zaintza lanekin zuzeneko lotura du, batez ere latinoamerikatik migratutako emakumeen kasuan. Gainera, bide horretan, herrialdean duten egoera (irregular/irregular egotea) edota bestelako arrazoi batzuek medio, behar baino baldintza okerragotan lan egiten dute. Edonolako abusuak ekiditeko baliabideak sortu eta sozializatzea garrantzitsua da, ahaldundu eta bizi dezaketen babesgabetasun egoerari aurre egin diezaioten tresnak eskuratzeko laguntzeko.
- Emakume migratuen artean ere, beraien artean zein beste herritarrekin saretzeko beharra antzeman da. Horretarako bideak egituratzea interesgarria litzateke.
- Migratutako hainbat bikote heterosexualetan rol tradizionalen aldaketa ematen da Getariara heltzean, emakumeek lan merkaturako sarrera errazagoa baitute eta ondorioz, gizonak etxeko eta zaintza lanetan geratzen dira.

ESPAZIOAREN ERABILERA, URBANISMOA ETA MUGIKORTASUNA

2020 urtean udalak herriko irisgarritasun plana eguneratu zuen. Eguneraketa horretan ez zen genero-ikuspegia txertatzeko lanketa propiorik egin. Dena den, oztopoak kentzea eta herritar guztientzat herri irisgarriago bat sortzea du helburu planak.

Bestalde, garraio zerbitzu publikoei dagokienez, Getariatik Zumaia-Donostia autobusa pasatzen da, zein herri erdigunean dagoen autobus geltokian geratzen den.

Azkenik, kaleko segurtasunari dagokionez, herrian ez da inoiz gunen ilunen maparik sortu edota horien inguruko lanketa espezifikorik egin.

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO IRITZIEN

LABURPENA:

- Espazio publikoaren erabilerari dagokionez, elkarrizketetan behin baino gehiagotan aipatu da espazioa gizonen gehiago erabiltzen dutela; gehienbat kirolaren esparruan. Bide horretan, aipatu da asko naturalizatu dela gizonen "plazan" egotea eta emakumeen gehiago kostatzen zaiela toki publiko hori hartzea.
- Horrez gain, herrian emakumeen presentzia sinbolikoari dagokionez, duela gutxira arte ezer landuta ez zegoela eta azken urteetan herriko emakumeen (atzokoei zein gaurkoei) ikusgarritasuna eta aitortza emateko ekimenak martxan jartzen ari direla jaso dugu: sare konpontzaileen lana irudikatzen dituen mural erraldoi bat, emakume baten eskultura portuan, musika eskolari Pepita Enbil izena jartzea,... Dena den, bide horretan, oraindik zeregina dagoenaren ustea orokortua izan da elkarrizketatuen artean.
- Bestalde, kaleen segurtasunari dagokionez, elkarrizketa ezberdinetan hainbat gunen ilunen berri izan dugu, hala nola, obretan dauden espazioak, moila, txoritonpeko aldapa eta tunela...
- Udaletik ere jaso dugu gunen ilunekiko kezka. Horren adibide da, 2020an Eusko Jaurlaritzak diseinatutako Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziari udalak egindako alegazioetako bat gunen ez-seguru horien identifikazio lanik aurrikusita ez zegoela izan zela.
- Horrez gain, udaleko arkitektoak ere interesa eta ezagutza azaldu du udaletik bultzaz diren proiektuetan genero-ikuspegia txertatzeko. Hala ere, momentu honetan martxan dauden proiektuetan esku hartzeko aukera gutxi daudela aipatu du.
- Mugikortasunaren eta irisgarritasunaren inguruan, emakume pentsiodunekin egindako elkarrizketan jasotakoaren arabera, Getarian hainbat zailtasunekin egiten dute topo mugikortasun mugatuagoa duten pertsonen. Zentzu horretan, eskilara mekanikoak arriskutsuak direla eta mugikortasun mugatua duten pertsonentzat edota gurpildun aulkian dabilzan pertsonentzat erabilgarriak ez direla aipatu da. Irigarritasun arazoak dituen toki zehatz gisa anbulategia aipatu da.

“Iristeko toki zaila, anbulategia”

“Ni gauien bildurra pasata nao”

*“Eskilara mekanikoak ezinduendako
gaizki...”*

*“Inoiz ez zait ezer pasa baina
beldurra izan dut”*

“Nik eskilarak igo bai baina jeitsi...”

ONDORIOAK

- Espazioaren erabilerari dagokionez, gizonek erraztasun handiagoarekin bereganatzen dute espazioa, gehienbat kirol eremuari lotuta.
- Horrez gain, emakumeen presentzia sinbolikoan sakontzeko beharra antzeman da. Azken urteetan hori lantzerantz bideratutako ekintzak egin dira. Bide horretan aurrera egiteko asmoa ere antzeman da udalean zein talde feministan.
- Herrian gunek ezberdinak daudela jaso dugu. Gune horien mapa bat osatu eta espazioak seguruago izateko neurriak hartzeko beharra identifikatu da.
- Udaletik gaiarekiko kezka eta interesa adierazi da, interes hori elikatzen jarraitu eta egiten diren plangintzetan genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko beharrezko ezagutza eskaintzea interesgarria izango litzateke.

GIZARTE ZERBITZUAK ETA OSASUNA


Getariako udalak Gizarte Zerbitzuen bidez herritar guztien gizarte-ongizatea sustatzeko hainbat zerbitzu eskaintzen ditu. Hala ere, bertatik eskaintzen diren zerbitzu horietako gehienak Gipuzkoako Diputazioaren bidez eskaintzen dira, herriko gizarte zerbitzuetako teknikariak horietan parte hartzeko egin beharreko tramitazioa errazten duelarik.

Gizarte zerbitzuetatik etengabeko harremana dute bai herriko anbulategiarekin, eta baita Zarautzeko osasun mentaleko unitatearekin eta hospitaleko Gizarte Zerbitzuekin. Zentzu

horretan, aiptau, zerbitzu horietako erabiltzaileen ehuneko esanguratsu bat pertsona nagusiek osatzen dutela.

Hori horrela, Gizarte zerbitzuen bitartez herritarrei zuzeneko arreta eskaintzeaz gain, hainbat alorretara bideratutako prebentzio eta sentsibilizazio kanpainak ere bideratzen dira.

Bukatzeko, Gizarte Zerbitzuen bide eskaintzen diren hainbat laguntzetako erabiltzaileei erreparatzen badiegu, ondorengo argazkiarekin egiten dugu topo:



(Iturria: Behagi)

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO IRITZIEN

LABURPENA:

- Gizarte zerbitzuen bitartez burutzen den esku hartzea genero-ikuspegia txertatzeko ezagutza eta baliabide falta dagoela aipatu da.

ONDORIOAK

- Gizarte zerbitzuen bidez lan garrantzitsu bat egiten da herritarren ongizatea sustatze bidean. Lan horretan, emakumeekin eta emakumeen beharrei ere erantzuten zaie.
- Dena den, ez da berariaz lana genero-ikuspegiarekin burutzen. Interesgarria litzateke, genero-ikuspegia txertatu ahal izateko baliabidez hornitzea lan hori burutzen duten pertsonak.

GENERO-BERDINTASUNA

Herrian genero-berdintasunaren lanketa

Herrian genero berdintasuna sustatzera bideratuta egin den eta egiten den lanketa antolatuari dagokionez, bi eragile aipatu beharreen gaude: Mariñak Talde Feminista eta Getariako udala.

Mariñak talde feminista

Mariñak Getariako talde feminista 2018 urtean sortu zen. Dena den, ez zen ezerezetik sortu, izan ere, bere sorreraren aurreko urteetan herriko hainbat emakume feminismoaren inguruan antolatuta zeuden, eta ekimen ezberdinak burutu zituzten; nahiz eta horietako asko taldera begirakoak izan ziren. Talde horretan parte hartu zuten hainbat emakume gaur egun Mariñak taldeko kideak dira.

Bere sorreratik Mariñak talde feministak eraikitako bidean ekintza ezberdinak burutu ditu, Getarian ikuspegi feminista zabaltzeko helburuarekin: jai espazioak espazio seguru izatera bideratutako lanketak, 2019ko Greba Feminista, egun seinalatuetara begirako ekintzak (m8, a25), erasoen aurkako salaketak, barne formazioak, herri aldizkarian artikuluak idatzi, etab.

Taldea ez mistoa da eta 6 kidek osatzen dute gaur egun. Dena den, kideen parte hartzea eta bileren maiztasuna momentuaren eta disponibilitatearen araberakoa izan ohi da eta kideen arteko komunikazio kanal ohikoa whatsapp eta aurrez aurreko bilerak izan ohi dira. Tokiari dagokionez, ez dute espazio fisiko zehatzik eta bilerak etxeetan, lokal publikoetan, tabernetan, etab. egiten dituzte. Azkenik, baliabide ekonomikoei dagokienez, talde autogestionatua da. Beraien ekimenen berri emateko askotariko bideak erabiltzen badituzte ere (sare soziala, pankartak, kartelak...) aipatzekoa da herriko emakume ezberdinek osatutako whatsapp talde ireki bat ere badutela, zeinaren bidez taldearen inguruko sare feminista egituratzen den.

Getariako udala

Getariako udalean ez da berdintasunerako sail edo batzorde propiorik existitzen eta, horrez gain, ez dago berariazko arduradun teknikorik. Ondorioz, berdintasunerako politikak, Gizarte ongizate sailetik bideratzen dira eta gizarte langile bat eta ongizate zinegotzia dira lanketa edota ekimen ezberdinen ardura nagusia dutenak.

Azken urteetan, berdintasunerako plangintza propio eta antolaturik egon ez bada ere, udaletik ekintza eta jarduera puntual ezberdinak antolatu genero-ikuspegia herrian zabaldu eta berdintasunaren aldeko lanketa bat bilatzen zutenak; hala nola, prebentzio eta sensibilizazio kanpainak, emakume talde ezberdinentzat ikastaroak, M8 eta A25aren harira ekimen eta adierazpen ezberdinak...

Gainera, udala *Berdinbidean* sareko kide ere bada, eta bertatik proposatzen diren ekimen eta eskaintzen diren baliabideak erabiltzen ere erabiltzen dira Getarian lanketa ezberdinak egiteko. Zentzu horretan, Berdinbideaneko teknikariarekin elkaranean, bi urterako plangintzak egiten ditu udalak, ekintza posiblea aurreikusi eta antolatzeko.

Bukatzeko, baliabide ekonomikoei dagokienez, badira urte batzuk berdintasun politiketarako diru partida bat aurreikusten dela. Partida hori 6.000 euro ingurukoa izaten da urtero. Dena den, gaia zeharka ere lantzen saiatzen da udala, eta ondorioz, beste arloren batean zeharka genero-berdintasuna sustatzeko ekintzak egin ohi direnean dagokion arlo partidatik ordaintzen dira horiek.

Bi eragileen artean koordinaziorako hartueman ezberdinak izan ohi dituzte. Dena den, gaur egun ez dago komunikaziorako kanala eta modua adostuta.

Indarkeria matxista

Alor honetan ere Mariñak talde feminista eta Getariako udala aipatu behar ditugu.

Udalak, alde batetik, prebentzio eta sensibilizazio ekintzak egiten ditu (pegatinak, murala,...) horretarako eskura dituen baliabide eta laguntza ezberdinak baliatuz: Berdinbidean sareak eskaintzen dituenak, Estatu itunaren laguntzak, etab. Horrez gain, herrian erasoak egin izan direnean salaketa publiko eta intuzional bidez adierazi izan du eraso horiekiko gaitzespena eta erasotuari babesa. Bide horretan, azpimarratu behar dugu udalak indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko esku-hartzea ere burutzen beharra dago, zeina, Gizarte Zerbitzuen bidez egiten den. Bukatzeko, aiptau, herrian ez dagoela indarkeria matxistaren biktimei arretarako erakundeen arteko koordinaziorako protokolorik.



Mariñak taldeari dagokionez, sensibilizaziora eta salaketa sozialera bideratutako lana egiten du gehienbat, aurrez esan bezala, egindako ekintzen artean jai eremuak espazio seguru izatera bideratutako lanak edota erasoen aurkako salaketak daudelarik.

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO IRITZIEN

LABURPENA:

Herrian genero-berdintasunaren lanketa

Lehenik eta behin, galdetegiaren bidez jasotako iritziei erreparatzen badiegu, ikusi dezakegu erantzun duten pertsonen gehiengo oso handi batek emakumeen ahalduntzean lan egin beharra identifikatzen duela.



- Gainera, elkarrizketa ezberdinetan jasotakoaren arabera, Getariak duen izaera tradizionalak emakumeak ere esleitutako rolen arabera jokatzera bideratzen ditu. Horiek gainditzeko bide gisa ahalduntzean sakontzea aipatu da behin baino gehiagotan.
- Bide horretan, emakumeen eta gizonen bizi baldintzak berdinak ez direla eta egiteko asko dagoela ere aipatu da elkarrizketa askotan. Desberdinkeriak baldintzatutako errealitate batean bizitzearena sentimendu orokortu bat izan delarik.
- Emakumeen ahalduntzea, genero-berdintasunean

"Gai hauek ongi jorratu behar dira eta formakuntza ezberdinak eskeini jendea are kontzienteago izateko"

"Emakumeak

formazioa eta bizipenak partekatzeko espazioak sortzearen beharra behin baino gehiagotan aipatu da elkarrizketetan zein galdetegiaren erantzunetan.


- Hala ere, hainbat elkarrizketaturen artean gaiarekiko nekea eta etsitasuna ere nabarmendu da.
- Beste alde batetik, udaleko hainbat kidek, gai honi dagokionez, herritarren interesen berri izateko eta haiengana iristeko zailtasunak adierazi ditu.
- Bide horretan, ahalduntzea sustatzeko ikastaroak eta dinamikak antolatzerakoan zalantzak ere jaso ditugu, ondoren horrelako ikastaroetan parte hartzea urria izaten dela baieztatuz.
- Bukatzeko, udaleko arlo ezberdinetan genero-ikuspegia non eta nola txertatu jakiteko formazio beharra ere aipatu da.

ahalduntzearekin zer ikusirik duten programak sustatzea lehentasuna izan beharko litzateke"

"Egunero borronkan, etxetik hasita"

Indarkeria matxista

Indarkeria matxista lehentasuna da galdetegia erantzun duten herritarren gehiengo garbi batentzat. Dena den, ez da hain handia indarkeria matxits kasu baten aurrean laguntza non bilatu dakien pertsona kopurua (nahiz eta gehiengoa izaten jarraitzen duen). Hori horrela, eta indarkeriari aurre egiteko dauden baliabide eta laguntzek duten garrantzia aintzat hartuta, horien berri herritar guztiek izan dezaten etorkizunerako erronka gisa ageri da.



- Aipatutakoaren bidetik, elkarriketatan ere prebentzio eta sentsibilizazio kanpainen irisgarritasunaren inguruko zalantzak adierazi dituzte hainbat pertsonak.
- Gainera, esan beharra dago emakume migratuek laguntza eskatu edo dauden zerbitzuetara jotzerako orduan herrialdean egoera irregularrean egoteak geldiarazi egin ditzakera baieztatu dutela.
- Emakumeek batzutan erasoak eta indarkeria egoerak identifikatzeko zailtasunak izan ditzaketela ere aipatu da, nahikoa tresna ez badituzte, indarkeria egoera batzuk normaltzat hartu ahal direla baieztatuz.
- Zentzu berean, behin baino gehiagotan aipatu da esperientziak partekatu eta normaltzat hartu daitezkeen indarkeria egoerei buruz hitz egiteko espazioak sortzearen beharra.
- Indarkeria kasu baten aurrean nora jo jakingo luketen galdetzean, erantzun ezberdinak jaso ditugu: batzuk argi adierazi dute ezetz, beste batzuk ordea larriadi zerbitzuak, polizia, gizarte zerbitzuak edota talde feminista dute erreferentzia gisa. Galdetegia erantzun duten erdiak bano pixkat bat gehiagok baieztatu du nora jo jakingo lukeela.
- Azkenik, aipatu, elkarriketatuak izan diren talde eta eragileek, oro har, ez dutela indarkeria matxistari aurre egiteko barne protokolorik.

*“Talde feminista badago.
Talde feministara
gerturatuko nintzateke”*

*“Erronka gehiago
partekatzea gertatutako
jazarpenak. Espazio seguru
bat sortzea ez da erraza.
Identifikatzea normaltzat
hartzan ditugun
jazarpenak...”*

*“Jazarpen bat agian jaso
dugu baina ez gara
konturatu. Gainera, ez da
hitz egiten. Gutxik egiten
dute lanketa hori.”*

ONDORIOAK

- Herrian genero-berdintasuna sustatzeko lanketak urte batzuetako ibilbidea du eta gaur egun egonkortze bidean dago.
- Berdintasun politiketan udalak ibilbide laburra eta antolatu gabekoa izan du. Dena den, gaia lantzeko gogoia adierazi da behin baino gehiagotan.
- Azpiegiturari dagokionez, udalean egitura propiorik ez egoteak dinamika jarrai bat izatea zailtzen du, etorkizunean hori lantzea komeniko litzatekeelarik.
- Berdintasuna zeharka udaleko esparru guztietan lantzeko hainbat langileren artean ezagutza eta segurtasun falta dago. Interesgarria litzateke udal langileek genero-ikuspegia beren lanetan txertatzeko prestakuntzak burutzea.
- Bide horretan, plangintza egituratu baten beharra ere bada. Hori sortzeko oinarri izango da dokumentu hau.
- Talde feministari dagokionez, egonkortuta dago eta herrian eta herritarren artean erreferentzialtasuna hartzen ari da (oraindik ezagutzen ez duen jendea badagoen arren). Hori positiboa da, izan ere, herritaren gertutasuna eta eragiteko gaitasuna adierazten dute.
- Talde feministaren eta udalaren arteko komunikazio kanal eta modu formal bat adostea interesgarria izango litzateke.
- Bestalde, emakumeen ahalduntzea gako garrantzitsu gisa identifikatu da berdintasunean urratsak emateko.
- Horrez gain, indarkeriari dagokionez, lehentasunezko gaia da getariarrentzat. Bide horretan sentsibilizazioan, salaketan zein esku-hartzean urratsak eman beharra azpimarratzen delarik.
- Hala ere, garrantzitsua da dauden baliabideen berri izatea herritarrek, eta zentzu horretan badago non sakondua.

Aurrera begirako erronkak

Bukatzeko, aztertutako guztiarekin, diagnostiko prozesuan zehar identifikatu diren erronka nagusiak jasoko ditugu. Hala ere, errealitatea etengabeko mugimenduan dago eta ondorioz, ondoren jasotzen dena ez da zerrenda mugatu bat, bidean sortu edo identifikatzen diren hutsune, eginbehar edo gabeziek ere tokia izan dezaketelarik etorkizuneko planean.

**Atal hau EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren egituraren arabera antolatuko da. Dena den, erronka bakoitzak txosten honetako zein atalekin lotura duen ere jasotzen da.*

GOBERNU ONA

- [Udalaren osaera politikoa eta teknikoa] Udalaren osaera politikoari dagokionez, gai banaketetan ohiko rol tradizionalen arabera banaketa gainditzea, eta ordezkarien genero-mandatuaren arabera egotzen ez zaizkien gaien ardura eta inplikazioa sustatzea.
- [Udalaren osaera politikoa eta teknikoa] Langileen artean ematen den segregazio horizontala gainditzea.
- [Udalaren osaera politikoa eta teknikoa] Ohiko rol tradizionalak gainditzeko dituzten udal langileei ikusgarritasuna ematea, eredugarritasuna eta erreferentzialtasuna lantze aldera.
- [Udalaren osaera politikoa eta teknikoa] Garbiketa zerbitzua eta etxez etxeko laguntza zerbitzua, bere osotasunean emakumez osatua daudenak, kontratazio zuzen bidez kudeatzeak langileentzat zein onura eta kalte izango lituzkeen aztertu eta horren arabera bidea egitea.
- [Udalaren osaera politikoa eta teknikoa] Berdintasuna zeharka lantzeko udal langile zein politikarien ezagutza bermatzea:
 - o [Espazioaren erabilera, urbanismoa eta mugikortasuna] Burutzen diren hirigintzarekin lotutako plangintzetan genero-ikuspegia txertatzea. Horretarako lan horietan eskuhartzen duten pertsonen sentsibilitatea eta formazioa landu.
 - o [Gizarte zerbitzuak eta osasuna] Ematen den arreta balioan jarri eta lana genero-ikuspegia kontuan izanez burutzeko baliabidez hornitzea langileak.

- [Euskara] Etorkizuneko balizko euskara mahaian genero-ikuspegia bermatu, horretarako kideen kontzientzia eta sentsibilizazioan eraginez.
- [Zahartzaroa] Gaur egun burutzen ari den pertsona nagusiei buruzko ikerketan genero-ikuspegia txertatzea.
- [Udal komunikazioa] Indarrean dauden euskarrietan komunikazio ez sexista erabiltzen dela bermatzea.
- [Udal komunikazioa] Politikari zein teknikariak hizkuntzaren erabilera ez-sexistan eta komunikazio inklusiboan trebatzea.
- [Genero-berdintasuna] Udalean genero Berdintasuna lantzeko egitura bermatzea, etorkizunean diseinatzen diren plan eta ekintzak kudeatuko dituen.
- [Genero-berdintasuna] Emakumeen ahalduntzea sustatzea eta askotariko emakumeak sartzeko espazioak eta baliabideak eskaintzea.
- [Genero-berdintasuna] Herriko eragile eta norbanako feministen ekarpenak jaso eta elkarlana bideratzeko kanal formalak sortzea.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

- [Kultura] Kulturgintzan ohiko rol tradizionalak gainditzea.
- [Kultura] Kulturgintzan herriko emakumeek historikoki egindako ekarpena aitortu eta balioan jartzea.
- [Kirola] Herriko kirolean dagoen desoreka murriztea, emakumezkoen partehartzea sustatuz, eta horretarako kirol esparrua beraientzat espazio segurua izan dadin landuz.
- [Kirola] Herriko emakume kirolarien eta herrian bertan kirola egiten duten emakumeak bistaratzea.
- [Kirola] Herriko kirol taldeetako erabaki guzuetan emakumeen parte hartzea sustatzea.
- [Kirola] Kirol taldeen artean gaiaren inguruko sentsibilizazioa eta kontzientzia hartzea sustatzea.
- [Euskara] Herrian nokaren erabileraren egoera ezagutu, eta ahalduntze prozesu baten baitan hori indartzeko aukerak aztertu beste herri batzuetako esperientziak baliatuz.
- [Euskara] Euskalgintzan emakumeek egiten duten ekarpena ikustarazi eta aitortu.
- [Zahartzaroa] Emakume nagusien ahalduntzea sustatzera bideratutako formazio eta sentsibilizazioa lantzea, beraiek ere gizarte aldaketan subjektu aktibo izan daitezen.

- [Migrazioa eta aniztasuna] Zapalkuntza anizkoitzek emakume migratuen bizitzetan nola eragiten duten kontuan hartuta, emakume horien ahalduntzea sustatzea.
- [Migrazioa eta aniztasuna] Emakume migratuen saretzea sustatzeko baliabideak sustatu.
- [Migrazioa eta aniztasuna] Emakume migratu askoren lan prekarizazioari aurre egiteko baliabideak sortu eta eskuragarri jarri, emakume migratuak ahaldundu eta bizi ditzaketen babesgabetasun egoerei aurre egiteko tresnak eskuratzen laguntzeko.
- [Espazioaren erabilera, urbanismoa eta mugikortasuna] Emakumeen kaleetako presentzia sinbolikoa lantzen jarraitzea.

EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO

- [Sozioekonomia] Enpleguaren alorrean ematen den segregazio horizontala gainditu eta enpleguan argazki orekatuagoa lortzera bidean urratsak ematen jarraitzea.
- [Zaintza lanak] Zaintza eta etxeko lanetan gizonezkoen inplikazioa sustatzea.
- [Zaintza lanak] Uda garaian lan egiten duten pertsonen zaintza ardurak betetzen laguntzeko bideak aztertu eta martxan jartzea.
- [Zaintza lanak] Kontratazio pribatu bidez asetzen diren zaintza beharretan oinarritako baldintzak bete daitezen, kontzientziazioa lantzea, horretarako materiala informatiboa sortu eta zabalduz.
- [Gazteria eta hezkuntza] Hezkuntza eragile eta komunitatearekin batera genero-berdintasunean etengabeko formaziorako bideak definitzea, genero-berdintasuna modu isolatuan eta arazo zehatzei erantzunez lantzen den gaia izan ez dadin.
- [Gazteria eta hezkuntza] Dagoeneko martxan dauden eta emaitza positiboak dituzten dinamikak mantendu eta indartzea (adibidez, guraso eskola).
- [Gazteria eta hezkuntza] Haurrengan eragiteko guraso eta gainerako herritarren erreferentzialtasuna lantzea.
- [Migrazioa eta aniztasuna] Emakume migratuek egiten duten lana eta horren garrantzia balioan jarri eta hori duintzeko moduetan sakontzea.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERARIK GABEKO BIZITZA

- [Jaiak] Jai eremuak zapalkuntzarik gabeko espazio seguruak izan daitezen sentsibilizazio eta prebentzio neurriak lantzea.
- [Jaiak] Burutzen diren ekintzetan eta jai egitarauan genero-berdintasuna bermatzea,
- [Jaiak] Herrian eztabaida pizten duten ospakizunak nolakoak izan behar diren herritarrekin batera adosten jarraitzea, beti ere genero-ikuspegia bermatuz.
- [Espazioaren erabilera, urbanismoa eta mugikortasuna] Herriko eremu kaleak seguruagoak egitea; horretarako, gunek ilunak identifikatu eta horiek eraldatzeko neurriak hartuz.
- [Espazioaren erabilera, urbanismoa eta mugikortasuna] Herriko espazio ezberdinetara, eta batez ere, oinarrizko zerbitzuak eskaintzen dituzteen gunetara irisgarritasuna bermatzea.
- [Genero-berdintasuna] Sentsibilizazioan, salaketan zein esku-hartzean lanean jarraitzea eta indarkeria jasaten duten emakumeei tratu egokia bermatzea.
- [Genero-berdintasuna] Indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa lantzea eta herritar guztiek indarkeria matxistari aurre egiteko dauden baliabideen berri izan dezaten bermatzea.

Bukatzeko, herritarrek, luzatutako galdetgian, aurrera begira lehentasuna non jarri beharko litzatekeen galderari honela erantzun diote:

